



SAGASTIBERRI

Urruzunotarrak
gehituz

2020

irakaskuntza ertainetako

Urruzunotarrak gehituz

literatura-ekimena 2020

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2020ko uztaila

Ale-kopurua: 1.400

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Prestatzaileak Begoña Erkiaga, Ibon Olaziregi eta Maitane Izagirre

Azala: Txapo Creativos S.L.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta inprimategia: GZ Printek

ISBN: 978-84-457-3559-6

Lege-gordailua: LG G 00435-2020

AURKIBIDEA

Sarrera		7
Hitzaurrea. Beste asko ere banaiz	<i>Jasone Osoro</i>	11
Poesia: A maila		17
Lepoaren puntatik	<i>Peio Lago Iturriaga</i>	19
Tissuitera	<i>Aratz Fdez de Pinedo Irastorza</i> ..	25
Ez dut gosea ezagutzen	<i>Leire Vargas Nieto</i>	31
Nire poema	<i>Naia Aiestaran Iparragirre</i>	37
Zalantzen itsasoa	<i>Leire Zeberio Feltrer</i>	43
Enara	<i>Garazi Urdangarin Larred</i>	49
Poesia: B maila		55
Autoernetzea	<i>Amets Amutxastegi Maguregi</i> ..	57
Urtez urte	<i>Harri Díaz de Heredia Matanzas</i> ..	63
Instagram	<i>Elena Agirre Martija</i>	71
Prosa: A maila		77
Oroit nazazuen	<i>Maddi Zabalo Mateos</i>	79

Besotik nork heldu	<i>Aner Peritz Manterola "Euzkitze" ..</i>	91
Beste behin	<i>Jone Urbietta Lejardi</i>	101
Itsualdia	<i>Amaiur Puente Otero</i>	109
Tren bete itsaso	<i>Maddi Zabalo Mateos</i>	119
Munstroei ipuinak	<i>Mar Quijano Cid</i>	131
Prosa: B maila		149
Sugea eta zu	<i>Maddi Agirre Epelde</i>	151
00:00 (hamabiak)	<i>Orreaga Zabaleta Ikatzeta</i>	159
Ilargi argiak	<i>Maren Llanos Calviño</i>	167
Azken malkoa	<i>Nora López Agirreurreta</i>	177
Bizkorraren zoritxarra	<i>Iker Maio Manterola</i>	189
Noranzko zuzenean	<i>Nagore Iruguenpagate Arrieta ..</i>	197
Urruzunotarrak 1986-2020		209

SARRERA

Hogeita hamabost urte dira Urruzuno literatur lehiaketaren lehenengo ediziotik. 1986an abiatu zen lehiaketa haren jarraipena da “Urruzunotarrak gehituz” izeneko gaur egungo ekimena.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehunetik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literaturako izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila eta eraginkorra dago gaztetxo idazlearen atzean. Berezko iaioetasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu zure barnean daramazuna ikusten. Agian, oraingoan ez duzu asmatu zure hori kanporatzen. Beharbada, trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da: “saiatu” besterik ez.

Aipa ditzagun aurtengo datuak. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen lankidetzaz izan dugu aurtengo epaimahaian:

Gari Berasaluze
Peru Iparragirre
Goiatz Labandibar
Jasone Osoro
Patxi Zubizarreta

Parte-hartzeari dagokionez, 2020. urte honetan 114 lan jaso dira: A mailan, 56 prosan eta 24 poesian; B mailan, berriz, 29 hitz lauz eta 5 olerkian. Parte-hartzaileetako 88, neskak dira, eta 26, mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aiamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna, atal bakoitzean.

Aipamendunek irailean egingo den bost eguneko literatur egonaldian hartuko dute parte.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak, eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2020a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen arabera alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Jasone Osoro.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburua zure ikasleen artean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna zabaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburua, gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itzaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

“IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU”, deiadarka datorkizu liburua.

Euskara Zerbitzua

Beste asko ere banaiz

Jasone Osoro

Hara, ni ez naiz Urruzunotarra, eta zu bai.

Baina Pedro Migel Urruzuno Elgoibarren jaio zen, ni bezala, eta haren omenez literatura talde bat sortu genuen herriko hainbat idazle gaztek. Aspaldi izan zen hori, oso aspaldi. Arraro xamarrak ginen kide guztiak, idaztea eta irakurtzea gustatzen zitzaigun eta hori nerabea edo gaztea zarenean ez da prestigoa ematen duen zerbait. Are, ni txikitan idazten hasi nintzen ez nuelako lagun on askorik. Gustatzen ez zitzaidan errealitatetik ihes egiten nuen liburuak irakurtzen nituen bitartean, eta idazten gauza bera egin nezakeela pentsatu nuen. Hala, istorioak sortzen hasi nintzen, neuk nahi nuena asmatzen nuen, nahi nuen lekuetan gertatzen ziren abenturak ziren, eta, gainera, protagonistak neure gustuko pertsonaiak ziren, nik zizelkatutakoak. Mendeku bat zen neurri batean, batzuetan gaizki tratatzen ninduen bizitzaren kontrako mendekua. Eta saria zen gehienetan, testu haiek sortzeaz bat, ondo pasatzeaz gain, galdera askoren erantzuna ere topatzen nuelako idazten nuenean, nire barruko korapilo asko askatzen nituelako, neure burua ulertzen eta onartzen nuelako eta, ondorioz zoriontsuagoa eta libreagoa nintzelako. Agian arraro xamarra izaten jarraitzen nuen, baina zoriontsuagoa nintzen. Binomio polita zen hori.

Bada, esandakoa, Urruzuno literatura taldea osatu genuen Elgoibarko hainbat gazte idazlek. Tarteka elkartzen ginen, geure testuak elkarri erakusteko, liburuak gomendatzeko eta baita bizitzaz hitz egiteko ere. Ekitaldi bat edo beste antolatu izan genuen, errezitaldiak eta hitzaldiak, eta *Hamaika litera* izeneko aldizkaritxo bat argitaratu; gure lanez osatutako liburuxka zen, paper birziklatuz egina, diseinu modernoa zuena, eder ederra. Ondorioz, neurri batean banaiz Urruzunotarra, zuek bezala. Eta ba al dakizue gauza bat? Pentsatzen jarri naiz zenbat eta zenbat bider izan naizen beste bat. Esate baterako, Quinoren *Mafalda* eta Purita Camposen *Esther* izan naiz. Eta Jerry Siegelen *Superman* eta, batez ere, Lois Lane, edo Victor Moraren *Capitan Trueno*. Louisa May Alcotten *Little Women* eleberriko Jo izan naiz eta Federico García Lorcaren *La Casa de Bernarda Alba* Adela. Michael Enderen *Amaigabeko istorioko* Bastian eta Atreyu izan naiz. Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eleberriko Gisèle. Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpoxeko* emakume banatua bezala sentitu izan naiz. Irene Nemirovskyren *Dantzaldiako* Antoinette eta *Jezabeleko* Gladys bezala. Marian Engelen Lou izan naiz eta, zergatik ez, baita artza ere.

Italo Calvinok idatzi zuen hauxe: *Batzuetan osatu gabe gaudela iruditzen zaigu, baina gertatzen zaigun bakarra da oraindik gazteak garela*. Bada, beste errealitate batzuetan sortu eta bizi diren pertsonaia eternoen zatiekin estali ditut nire zuloak nik. Literaturak laguntzen du garen hori betetzen eta azaleratzen, geure barrutik irakurtzen eta idazten baitugu. Barruan falta zaiguna bilatzen dugu besteen hitzetan. Barruan hautsi zaiguna konpontzen dugu geure hitzekin. Barruan desorekatu zaigun hori orekatzen dugu

beste ni horiekin guztiekin. Geuk sortutako pertsonaien bitartez edo beste norbaiten eskutik jaio direnekin. Gutxienekoa da hori.

Literaturan beste gu asko gaude. Zeinen ederra den horiek deskubritzea. Zeinen ederra den beste gu horiekin guztiekin ni handi eta osoa eraikitzen joatea.

Hara zer idatzi zuen Pedro Migel Urruzunok:

—Bai al dakizu ipuiaren bat?

—Ipuirik eztaquit, baña bai ipuiaren antzeko beste gauza bat.

—Zer ote da ba?

—Amets bat.

Bada, argi dago, denok Urruzunotarrak izango bagina, mundua habitat atseginagoa eta bizigarriagoa izango litzateke.

Jasone Osoro, 2020

POESIA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Lepoaren puntatik

Peio Lago Iturriaga

Artaza-Romo BHI

Leioa

KaSu

Zenbat bizio bizian, bakea zoratzearen lan bizian.
Ta agertzen zara noizbehinka.
Hitz goxo lotsatuak totelka, zoramenarenugarra
zorutzen, bizioak bizio bihurtuz, bi gorputz urtuz,
laztantzzen.
Baina izaren beroan soilik ez zara bizio, zu entzutea
ondoan desio baitut bizi osoan.
Ta suak ez duenean txinpartarik,
Suaren kaSua itzaltzea bada
bukatzeko era, gure era
Bukaera gurera azaltzean
Oroituko zaitut
Arrasto bustia
Izaren bizio berezian Bizi
guztian.

Dispirazio

Zirriborratzen ditut paperak ta koadernoak
Mugitzen ez den trenean helmugaren
esperoan Ta beharbada
Frustrazioa banu pasio
Ez nuke beste ezer desio gaurkoan

Ispiluan begiratutako hitzetan
Garauak
Konkorrak
Iletxoak zirriborratzen ditudalako
Paperean bertan
Poesiaren zirriborroetan.

Kuku

Kukufrika bat landatu nuen
ta hor dago leihoan begira
kuku so

Zangalatraba

Zurekin
Akordatzen
Naiz
Gauero.
Azaltzeko
Latzegi Agian.
Tarantula
Rola
Aukeratuta
Bihotzak
Amiltzen.

Izkin

Irriz marraztu ditut izkinak.
Lanbroek begiak lausotu arren, irriz marraztu ditut.

Arantzek azala marratu arren, irriz marraztu ditut.
Ta loreen ubeldurak, zurtoinen abaildurak,
ubelbaildurak ere irriz marraztu ditut. Irrizatutako
paretak ere irriztatu ditut, ta margoa tantaka
irriztatu arren irriz bermarraztu ditut.
Ta irriztatutako bermarrazkietan irriztaka
Ni ere
Irrizatatu naiz.

Beste koplak erromantiko bat

Nire izkinetan zure graffitiak
Horren ondo geratzen dira
Puntan jarri dizkidazu titiak
Begirada goxo horrekin begira
Nire sagarrondo ta mahastiak
Jarri nahiko nituzke zure argira Tori
sortu dizkizudan abestiak Zure
metrikaren neurrira.

MariPoza

Kaletik jarraitu nau pinpilinpauxak tximeletak,
mitxeletak.
Jolasteko gogoz zegoen zintzitoila,
Txiruliruka
Eta sorbaldan txiribirika.
Irribarre bat piztu dit
txilipitainak, sorgin-oilo azala
jarri eta begiak mitxirrika ditut.
Airearekin batera itzuli da bere
etxetxora MariPoza

Tissuitera

Aratz Fernández de Pinedo Irastorza
Armentia Ikastola
Gasteiz

Beroaren pisua dut bizkarrean.
Astuna da,
arnastean sentitzen dut
nola sudurrean barrena
sargoria
sartu,
birikak desertifikatu
eta hego-haizea kanpora irteten den, astiro-astiro.

Hareazko lurraldean eguerdia da.
Auto zaharrean ere uda da.

Asfaltozko bide berrian barrena
bakarrizketan goaz denak,
hegan joango bagina...
ni leihotik begira:
ordoki idor, bide bazterreko herri
han-hemenka zuhaitz bi.
Urrunean hainbat mendi,
hurreratzen ari gatzaizkielarik.

Bertakoak falta dira, ordea,
argazkian: han-hemenka agertzen diren oin
oinutsak,

bide bazterrean fruta salduz,
erreka bazterrean alfonbrak garbituz,
etxe bazterrean kontuak kontatuz.
Bazterrean egongo dira.
Beti bazterrean,
bazterrean bazterturik,
eta noski, zapaldurik.
Zer esango diet nik,
Europatik datorren gazte zuri honek?
Nire burua zuritu ala belztu behar dut?

Hegazkinak lur hartu duenetik,
berria da
dena. Ezer gutxi da hemen ematen duena,
ezer gutxi gardena,
edo ni naiz ikusteko gai ez dena?
Ikusteko.
Ikasteko.
Isilik behatzea onena,
zaratak ez dezan aztoratu, berez
lasai dagoena.

Pentsamenduak puztu dira
eztanda egin arte.
Artean begiak itxi ditut,
irekitzean denak berriz josiko
ote diren. Ametsek ideiak antolatu edo desantolatu egiten
dituzte?

Izerditan nago, esnatu naizenean *Tu t'es enfin réveillé!*
Gutxi falta omen da, gidariaren esanetan. Zirrarak hartu dit
gorputza,
bete dit galderaz barruko hutsa,

nolakoa izango da jendea han?
nolakoa izango naiz ni han?
Apur bat hitz egin dugu, baina ez hizkuntza berean.
Kristalaz bestaldekoa dut lagun,
bien bitartean.

Atlaseko mendien tontorrean elur eske ari dira
neguaren azken arrastoak,
noiz urtu,
noiz desagertu
geldigaitza denaren esperoan.

Arrac ezzin d i tamghart
A sen teghar tiqdimin!
kantuan gidaria,
irrifar handi batez.
Irrifar handi batez
begiratu diot kanpoaldeari,
Nous sommes arrives!
Heldu gara, azkenean,
Tira ba, esnatu!
Bide estu batean zehar,
adobezko etxeak zeharkatuz,
atari bakoitzetik zeharka
begira ditugula,
jakin-minak berritasunari lez,
kotxearen atzetik lasterka datoz haurrak, irrifar handi batez,
eguzkia sartzeaz da.

Gelditu gara, halako batean. Borborka dut odola,
lurra zapaldu nahi dut
baina ez dakit nola.

Ez dut gosea ezagutzen

Leire Vargas Nieto
Fray Juan de Zumarraga BHI
Durango

Hauskorra. Hauskorra naiz oso,
ene gorputza nire aurka errebelatu eta
helarazi behar niokeen gantzaren faltan
hezurrak barnetik kamusten, kraskatzen
hasten denean.

Hori dut
buruko irudia,
bizitza oso bateko egonezina
azaltzen duena.
Batadun ahots haren azalpen zorrotzaz geroztik
daramat gogoan.
Eta aurpegia jarri diot azken hilabeteotan
barrua izoztu didanari;
unerik epelenean ere
hotz mantentzen nauenari.

Aurpegia eman diot eta hala ere
hotz naiz oraindik.
Berrogei graduko txorrotapean edo berogailuari itsatsita,
soinean hamaika geruza daramatzadala edo izerditan
nagoela ere
dago hotz hau nirekin;
nire barnean jaio da eta

bertan datza, zabalduz:
behatz ertzetaraino eta
betileetaraino ere - buruko ilea ia ez da nirea jada:
alde egiten dit etengabe.-

Eta orain dakusat dena
argitasun itogarrian: nik neuk
hartu dudala hozkailua nire bizilekutzat,
nik neuk erditu nuela
barneko ipar haize hau
arnasten uzten ez didana,
nik neuk elikatzen dudala
ganoraz elikatzen ez naizen momenturo.

Izotz honek gihar oro
sentibera egiten du, sukartua bailitzan.
Izotz honek jan egiten nau
barrutik kanpora
eta azal eta hezur artean harrapakinak aurki ezean
hor doa, kraska-kraska, kide proletarioak minetan nola,
enpresari handiaren gutiziarekin, hezurretan barna.

Sekula ez nuen pentsatu
hezurak hainbeste senti nitzakeenik.
Hotzak dira, eta zorrotzak eta hauskorak eta tarteka
azalean zehar lekua hartu gura izaten dute
- azken hilabeteetan konkista-gose etengabe bizi dira.-

Gosea. Gose dira haiek ere.
Baina nik ez dakit zer den gosea.

Nik dakit zer den hauskor sentitzea
eta hotza

hotza hotza hotza
etengabe, forma eta hizkuntza guztietan
hotz urdina eta zuria eta
termometroko marra gorria txikitzearen beldurra,
harekin batera
nire esentziaren tantaka bat daramalako
aldiro.

Nik dakit zer den barnean izotza landatzea zuhaitz
bat landatzen den eran
eta haren adarrak luzatzen doazela sentitzea
zuk irensten ez duzun guztiaz
hura ureztatzen duzulako.

Badakit zer den hark zure barneko txokoak bereganatzea,
hezurren eta organoen inguruan mintz fin bat eratzea
eta ohartu baino lehen
~~zu zenu~~ ni neu ere
izotz bilakatu naizela somatzea;
izotz zuri-urdinxka kolorgea indargea bizigea.

Izotz

goitik behera, barnetik kanpora
- eta baita bihotza ere izotz taketak zeharkatua
guda amaieran bandera lurrean iltzatuta nola.-
eta orain hori da ~~naizen~~ zaren guztia:
kutxa batean gorde eta zaindu beharreko
izotz hauskorra.

Nik ez dakit zer den gosea
baina nire buruan
gosea hotza da,
gosea inguruko mundua

izotz-geruza batean zehar soilik ikustea da,
gosea hotza da eta hotza da gosea,
gorputzeko gihar eta hezur eta odol-tanta oro izoztea;
eta orduan pertsona baino
gose izatea, gose-olde
izotzezko gose-olatu oldarkor bezain hauskor,
edozein kolpe edo deskuiduk
puska dezakeena.

Nire poema

Naia Aiestaran Iparragirre
Beasain BHI
Beasain

Umetan,
zerua berdez
eta zelaia morez
margotzen nuenean,
gaizki zegoela
esaten zidaten.
Urdina behar zuela zeruak,
laranja-horixka eguzkiak,
eta berdea zelaiak.
Horrela zela,
eta kito.
Nik, ordea,
ez nuen maite
hori entzutea.

Obeditu egiten nuen.
Baina ohartzen nintzen,
ohartzen zen zerbait
nire barnean,
nik ez nuela maite
marrazki guztiak
berdinak izatea.
Marrazki guztiek

ez luketela izan behar
berdinak.

Milaka aldiz
aldatu du,
ordutik,
zeruak kolorez,
eta milaka zeru
margotu ditut,
ordutik,
berdez,
morez,
gorriz
eta urdinez.

Milaka zeru,
inork
inoiz
epaituko ez dituen
orri ezkutatueta.

Milaka malko
isuri ditut,
milaka urrats eman,
milaka zuhaitz eskalatu,
milaka min,
eta poz
transkribatu.

Milaka epai
baztertu ditut,
ordutik,
bihotzak
zerbaitek horrela ez duela behar
gogorarazi didan bakoitzean,

entzun egin diodalako.
Benetan axola dionari
entzun egin behar zaiolako.

Bihotz bakoitzak du,
bere baitan,
bere poema propioa.
Etengabe ari da,
bere baitan,
bere poema propioa
eraikitzen.
Zure zeregina da
erabakitzea,
edo poema hori entzun,
bizi,
dastatu,
miretsi,
edo besteren poemetan barrena ibili,
noraizean,
saltoka,
zure bihotzaren
poemaren
oihartzunetik
ihesi.

Zalantzen itsasoa

Leire Zeberio Feltrer

Lauro Ikastola

Loiu

I

Kafetegi berera joaten jarraitzen dut.
Izkina berean jesartzen naiz.
Te bera eskatzen jarraitzen dut.
Badakidalako kafea gustuko ez zenuela.

Baina, jada ez zaitut itxaroten.
Ikasi dut zu urruntzen.
Zu ez bilatzen; aurrera jarraitzen.

Ez dut nire tea hozten utziko
berandu etorriko bazara.
Edo (atetik) inoiz agertuko ez bazara.

II

Nik goi-goian zintudan, iritsiezin.
Zu poliki poliki jausten zinen.
Neguak arrastaka eramaten dituen
orbelak bezala.
Honek, haizea hegoaldetik ez datorrela,
baizik eta iparraldetik

eta egunek argi gutxiago daukatela esaten dit.
Egunak apurtuta eta laburrago datozela.
Nire esperantzak bezain labur.
Zu bueltatzeko eta “maite zaitut” esateko
esperantzak bezain labur.

III

Gauza bakar bat aldatu ahalko banu,
atzera bueltatu ahalko banintz eta zerbait aldatu...
Zer aldatuko nuke? Denbora aldatuko nuke.
Buelta emango nioke eta aldatu.

Segundoak minutu bihurtu.
Minutuak ordu.
Orduak egun.
Horrela, agian, ez zinen joango urrun.

Dena dela, berdina egingo nuke.
Denborari buelta emanda,
azkenengo momentura arte itxarongo nuke,
begietara begiratzeko
eta maite zaitudala esateko.

Segundoak minutuak direlako.
Minutuak orduak.
Orduak egunak.
Eta nik maite zaitut.
Denbora buelta emanda badago maite zaitut.
Denbora artez badago, urrun joan zarelako.

IV

Lore arrosekin irits zintezen espero nuen.
Eta hainbeste itxaroteagatik, ni loratu nintzen.

V

Ez ondokoei lotu.
Har dezakezun erabakirik okerrena da.
Joaten direnean, edo zu joaten zarenean,
ezer geratzen ez delako.
Batek bakarrik oratzen du biok,
gogorki, eusten zenuten soka.

Azken baten, hori bakarrik gelditzen da: soka.
Eta soka, soilik soka da. Edo haria. Edo lerroa.
Edo ezer ere ez.

VI

Denboraren atzetik noa.
Denbora korrika doa,
gelditu barik.

Hurrengo trenaren zain eseri naiz.
Kontua da geltokia itxita dagoela.

VII

Zoriontasuna galdu nuen leku berean bilatzen nuen.

Bilatu, baina ez nuen aurkitzen.

Galdu nuen tokiaren bidea aurkitu nuen.

Bidea jarraitu, baina ez nuen aurkitu.

Gelditu nintzen toki berean pausatu nintzen.

Eta hor, hor ere ez nuen aurkitu.

Oraindik ere ez dakit non dagoen.

Baina badakit non ez dagoen.

Eta horra ez da inoiz bueltatzen;
arrazoiren batengatik joan zelako.

VIII

Izotzak ere erretzen du.

Eta nik jada, ez dakit iceberga naizen,
ala *Titanic*-a ondoratzen.

Enara

Garazi Urdangarin Larred
Hernani BHI
Hernani

Doinua: *Redemption Song*

Kable batean ezkutuan
enara bat adi-adi
kabi eder bat osatzeko
adaxkak biltzen da ari.
Denbora luzez aurre eginez
Afrika aldean hotzari
Euskal Herrian dira berriz
eguzki printzen gidari,
goizeko brisaren doinuan
somatu ditut kantari
ongiectorria emanaz
pozez udaberriari.

Azken izotzak urtzeakin
prestatzen dute maleta
etxe batetikan bestera
bide luzea dute ta,
ondo ezagutzen dituzten
ibai, mendi ta erreka
denak gurutzatuaz, beti

hego-haizean arreta
talde handian doaz hegan
Txandak hartuaz tarteka
hegadez zerua apainduz
ta ilusioz beteta.

Leioa ireki dut eta
begiratzean airera
hantxe zebilen enara bat
batera eta bestera;
sabelaldea zuria ta
bizkarrez beltza da bera
tamainaz txikia den arren
ez da geratzen atzera.
Begira ikusi nau eta
jaitsi da leiho parera
hau izan da gure arteko
harremanaren sorrera.

Leiho koskan geratu eta
nigana etorri ahala
konturatu naiz hegalean
zauri txiki bat daukala.
Minik ez duela dirudi
ez baita oso zabala
baina hala ere zapi bat
lotu diot berehala.
Orduan hasi da kantuan
pozik balego bezala
zerbaitek esan dit eskerrak
ematen ari zaidala.

Hegan hastean erortzerik
ez dedanez nahi inola
irtenbideren bat bilatu
beharko det hala nola,
nire apopilo hartzea
ez zait batere axola.
Ganbaratik zerbait hartuta
egingo diot kaiola
intentzio onenarekin
hartu dut bere kontrola
zoriontsu izango baita
ezer falta ez zaiola.

Dena eskura eman arren
erregina baten pare
badaramatza egun batzuk
kantuan aritu gabe;
uste det gure harremana
bihurtu zaiola sare
kaiola da haren kartzela
eta neronen aldare.
Bi hegalak moztu dizkiot
orain da nire mirabe
aske izan zedin nahi nuen
ta egin naiz bere jabe.

Hegoak itzuli dizkiot
eta hantxe doa alai
segituan aurkitu ditu
taldeko beste bi elai
ondo joatea opa diot

nahiz ez dudan joaterik nahi
bere bidea topatzeko
baduenez nahiko dohai(n).
Atzera begiratu gabe
hodeien artean darrai
ni hementxe geldituko naiz
bera noiz itzuliko zai(n).

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsuak

Autoernetzea

Amets Amutxastegi Maguregi

Lekeitio BHI

Lekeitio

Izan ginelako, nintzen.

Maitasun istorietan oinarritua,
Gerra irabaztera joana,
Galtzekorik ez duela pentsatua,
Milaka aldiz gertatua.

Arrosa zuria,

Hitz-jario limurra,
Laztan nahasia,
Borrokaren hasiera beroa,
Ohiko den ilusio merkea.

Arrosa gorria,

Itxura politaren aholkua,
etxean dantzatzeko ohitura,
“Zuregatik da” melodia,
eguneroko maitasun seinalea.

Arrosa urdina,

Begietatik isuri nuena,
Ezpainak muxuekin isilkatua,
Borrokaren porrota,
gerra bertan behera uztea hautabide pentsaezina.

Arrosa marroia,

Izena badu bada,
Gaueroko amesgaiztoa,
Zaurien estrategia egilea,
zu zara.

Arrosa beltza,

Aurpegia zuria,
Gorpua gorria,
Gerraren bukaera,
Zure garaipena.

Arrosa morea,

Hilerrietako hazi guztiengatik,
Oihu ozena bilaka dezagula,
Emakume gudaria,
Gerra irabaztera datorrela.

Haurrak lorea maite duen bezala, aita. (Loretzkoa, Benito Lertxundi)

Askatasunaren apologia.

Nik

Kateak maitatu ditut,
Gutxinaka gutxitzen doaz,
Oraindik ez naiz guztiz ni.

Gorputzen formak,
Estalgabetu ditut,
Oraindik bitxi dira.

Ausart izan nahi dut,
Oraindik,
Beldurra begietatik dudala.

Pentsatzen hasi naiz,
Sentitzeko gai naiz,
Lorearen loraketan naiz.

Zuk

Kateak apain dira,
Kosta lekizuke,
Haietaz guztiz desegitea.

Arraro zaizu,
Beste gorputzetan,
Erosotasuna nabaritzen dudanean.

Arantzak kendu nahi dizkidazu,
Jakin gabe,
Beharrezkoak ditudala.

Bide ezberdinen izu zara,
Jakinda,
Norabideak ongi ikasita ditudala.

Gu

Eskutik askatuko naiz,
Bihotzera irmo helduz,
Zugandik hurbil urrunduz.

Irakasle gaiztoena,
Irakaspen errealenak
Zure besarkadetan ikasiak.

Gauero-gauero,
Begietara begira,
Naizena egin nauena.

Ametsetan hezi,
Ni hasi,
Zure hazi.

Urtez urte

Harri Díaz de Heredia Matanzas
Armentia Ikastola
Gasteiz

Agurra

Non geratu dira?

Non geratu ote dira garai alaiak, bada?

Hain ziren alaiak

non denboran zehar galdu baitira.

Eta galdu ez balira?

Galdu ez balira,

ni ez nengokeen hemen,

ni ez nintzatekeen lagun bera izango.

Neguko hotza

Urtero bezala, hodeiek elurra dakarte.

Urtero bezala, iluntasuna gailenduko da zeruan eta

urtero bezala, hostoak galdu egin dira.

Bada, ni aurten haritza naiz, dirudienez.

Enbor zabal, adar sendo eta izaera iraunkor,

izotzak luzaroan erailko naularik.

Maindire zuri krudel honek beharbada nire

sustraiak ere akabatuko ditu oraingoan.

Udaberriaren zain geratuko naiz, beraz,

behingoz bizia dakarkidalakoan.

Itxaropena urria da; dena den, azken

funtsean, nork jasan dezake negua?

Udaberriko amodioa

Hel iezadazu eskutik eta eraman nazazu urrun,

izan gaitezen aske, izan gaitezen zoriontsu.

Edo hemen geratu, poza gal ez dezagun.

Gau amaigabearen ostean argia heltzear delarik,

zure partetik ez dut jaso hitzik, seinalerik.

Egunsentia atzeratzen ari zait oraindik.

Beldurrak elkartuko gaitu berriz ere agian,

bion ahultasun guztiak jadanik agerian.

Ito baino lehen, nahiago hastea igerian.

Berriro begiratzeko, elkarri egiten genion bezala,

eta desio dudan hau izan dadin erreala.

Elkarrekin ez bagaude, elkartzeko berehala.

Udako eguzkia

Eguzki hori horrek
egunero argia ekartzen digu
eta egunero berotzen gaitu.

Eguzki hori horri
inork ez dio ezer eskertzen eta
inor ez zaio hurbildu.

Eguzki hori horretatik
sugarrak ateratzen dira eta
izpiak heltzen zaizkigu.

Eguzki hori hori
nire alboan dago beti.

Beti.

Udazkeneko koloreak

Udazkena heltzen denean hodei
gris ausartak
gotorlekua utzitakoan bueltan dira.

Gaztainondoekin batera,
haizearen antzera
ihesi doaz mendialdera.

Zuhaitzek gogoz hezitakoan,
hostoek etxea utzi nahi dute
orbela ezagutzeko.

Gorri bilakaturik dantzan daudelarik
ez dute inongo penarik.

Pagoz pago saltoka
mugitzen da katagorria
negurako ezkurak bilatuz,

artadiak bisitatuz,
itxaropena galduz, azken
egunak gozatuz.

Instagram

Elena Agirre Martija
Gernika BHI
Gernika-Lumo

Badakit hurrengo eguna badatorrela
baina ezin dut telefonoa utzi.
Logura ez da nigana etorriko,
beraz, “Instagram”en nago berriro.

Hemen ospetsu asko daude,
batzuk oporretan.
Ez dut *like* botoia sakatu
horrelako bakarra naizela iruditzen zaidalako,
Instagram barruan.

Arazoa da,
mundu osoan
maitasun abesti bera dagoela
baina ez nau hunkitu.
Nire gauetan
pentsamendu gehiegi daude.

Zaila da
hainbestetan aldatzea,
ez dut hau egin nahi.
Informazio aro madarikatu honek,
zalantzarik gabe, arazo bat dauka.
Egun hauetan, gehiago jakiteak,
zorigaiztoagoko egiten zaitu.

Denborak aurrera egin ahala
zailagoa da aurrera egitea
Ni al naiz bakarra?

Ez duzu diskotekara joan nahi,
ez duzu filmik ikusi nahi.
Zer egin nahi duzu?

Bihotzean zulo bat daukat
ezin dena ezertaz bete.
Oraintxe hondoratzen ari naiz,
ozeano karratu batean.

Arazoa da
mundu osoan
maitasun abesti bera dagoela,
baina ez nau hunkitu.
Nire gauetan
pentsamendu gehiegi daude.

Gau guztian
denbora alferrik galtzen
Instagram barruan.

Bakar-bakarrik nago,
hain bakarti.
Gauzak hain gogorak al dira beti?
Ezin da izan.
Jario honetan,
jendea niregandik beste mundu batean bizi da.

Alferrikakoa nahiz argazki hauek igotzean
baina inork ez ditu haien atzean ezkutaturiko
sentimenduak ezagutzen.

Berrero noraezean nabil,
Instagram barruan.

Zer moduz zabilta egun hauetan?
Oraindik ere ezin dut lo egin.
Zure ile motza oso polita zen,
baina ez nuen like botoia sakatu,
bitxia izango litzatekeelako.

Gau guztian
denbora alferrik galtzen,
zure Instagram barruan.

PROSA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Oroit nazazuen

Maddi Zabalo Mateos

Arratia BHI

Igorre

*Inoiz inori abestirik dedikatu dion edonorentzat
(damutzen direnentzat ere bai).*

Beti izan diot inbidia bakarrik egotea gustatzen zaion jendeari. Nik ez dut egundo ikasi bakarrik egoten, eta isiltasuna ere ez dut inoiz maitatzen ikasi. “Zure ahotsak izutzen zaitu” dio Amets Arzallusek Miñan liburuan. Horixe. Horixe bera da. Nire ahotsak izutzen nau, ahoa zabaltzen dudan gehienetan norbaitek minduta amaitzen duelako, baina zinez zaila da norberaren ahotsari beldurra kentzea. Urteak dira ez naizela saiatu. Aspaldi, gogor ekin nion, baina halako batean amore eman nuen guztiz, eta ez naiz berriro saiatu. Terapiara ere joaten nintzen, baina, hori ere utzi nuen, hasieran diru faltagatik, gero denbora faltagatik, eta, azkenean, batez ere, gogo faltagatik, eta autosabotaia hutsez. Inoiz ez dut nire burua maitatzen ikasi. Horregatik milaka harreman izan ditut, bakarrik ez egoteko. Eta hementxe nago, bakarrik. Bakar-bakarrik.

Urri amaiera da, eta orain dela bi hilabete joan zen Jokin, nire bizilaguna eta lagun mina. Alemaniara joan zen lanera, hodiak egiten dituen fabrika batera. Ingeniaritzako lau urte

eta master bat egin ditu, hodiak egiten amaitzeko. Eta ezin pozago dago. Eta niri beldurra ematen dit hain pozik egoteak, ez dudalako nahi Alemaniak lapurtzerik. Bera joan zenetik bakar-bakarrik nago etxean, eta gauza gutxik egiten du faltan botatzea apur bat errazago.

Irene dut izena. Antza, aitak beti nahi izan zuen bere umea Irene deitu. Irene. Bakea. Inoiz ez zait gustatu izena: bakea esan nahi du eta hori da ez zaidana gustatzen, haurtzaro eta nerabezaro osoa iragan nuelako nire izenarekin bat etorri nahian, eta ez naiz pertsona baketsua. Lasaia bai, baina baketsua ez. Peruk, nire bikotekide ohiak (azkenak), esan zidan “zurrunbilo bat eta basamortu bat” oroitarazten dizkiodala aldi berean. Momentu txarretan zurrunbiloa naiz, bizia, eta abiadura handian egiten dut dena, eta, batez ere, inguruko jendea erakartzen dut haien txarrena izango denera. Momentu onetan desertua naiz, lasaia, eta beroz itotzen dut jendea goizean, eta hotzez gauean, eta nigan galarazten ditut, eta zoratu egiten ditut, eta ezinezkoa da nigandik irtetea.

Horrez gain, baina, badakit Peru nitaz oroitzen dela rimela ikusten duenero. Ez naiz bereziki despistatua, baina beti uzten dut gauza bat, bat eta bakarra, nire bikotekideen etxeetan: Mikeli eraztun bat, Ekairi ezpainenetako gorria, Harkaitzi hortzetako eskuila, Aimarri Madame Bovary liburua, Flaubertena, Joni kulero beltzak (egoera berezia zen), Jokinen maletan gure argazki bat eta Perurenean, rimela. Batera gauden bitartean irribarrea ateratzen die nire zati txiki bat edukitzeak etxean, eta banatzen garenean aitzakia modura balio dit haien etxera joateko bila, edo haiek deitzen naute esaten ahaztu egin dudala bertan. Gehienetan, beti esaten diet ez dudala behar eta haienezako uzten dut,

oroit nazaten. Peruren etxean rimela utzi nuen. Normalean, nik ez badut ezer esaten haiek deitzen naute, Peruk, ordea, ez. Seguruenik bota egingo zuen rimela, ahaztu nahi izango du, baina badakit, momentuz, rimela ikusten duen bakoitzean nitaz akordatuko dela, eta ez nau oroitu nahi, beraz, zinez espero dut oroit nazan. Nik askotan gogoratzen dudalako diot, ez pentsa.

Ezagutzen ditudan mutilengandik ere objektu bat uztearen antzeko zerbait egiten dut niretzat, baina mentalki. Ez dut esan nahi gauza bana lapurtzen diedala, baina beti aukeratzen dut objektu bat, bat eta bakarra eta beti gogoratu. Batzuetan, berezia delako, haientzat edo niretzat, besteetan, polita delako, edo, besterik gabe, inork ez begiratzeko moduko garrantzirik gabekoa delako. Adibidez, Adurrengandik La Polla Records-en kontzertuko eskumuturreko arrosa, Enaitzengandik EHUko boligrafo berde bat, Unairengandik bizkarrean tatuaturik daukan zumea, Hegoirengandik aharrausiak, Jokinengandik Perlata taldea eta txokolatezko palmerak, eta Perurengandik betaurrekoak eta garagardoa (baina argia). Objektu hauek osatzen dituzte nire oroitzapenak, agian dagozkien pertsonak baino neurri handiagoan.

Norbaitek deskribatu behar banindu, seguruenik neurekoia naizela esango luke segituan. Batzuetan kezkatu egiten nau nire egoismoak (besteetan harritu bakarrik). Atzo Jokinen amarekin egin nuen topo metroan. Arraroa egin zitzaidan Bilbo inguruan ikustea, eta esan zidan Gurutzetatik zetorrela, ospitaletik, bere neba ingresatu berri zutelako, eta antza oso gaizki dago. Ez zidan esan zergatik dagoen hain gaixorik neba, eta asko eskertzen diot, gurago dut ez jakin. Jokinek ere inoiz kontatu dit osaba makal zegoela, probak

egin izan dizkiotela sarri, baina inoiz ez da izan ezer larria. Azken asteetatik hona, baina, asko larritu ei da. Zera esan zidan amak, ez ziola Jokini esan nahi, asko maite zuelako osaba, eta, jakinez gero, berarekin egon nahiko zuela, eta kapaza izango zela Alemaniako lana utzi eta gauza guztiakin hona etortzeko, eta ez zuela arduratu nahi, baina, azken finean, balitekeela azken hilabeteak izatea hil aurretik. Amak jarraitu zuen kontaktzen, begiek negar-anpuluz gainezka egin behar ziotela, baina ni beste gauza batean nenbilen pentsatzen: Jokinek etorri nahiko zuen. Are gehiago, amak arrazoia zuen, gai ikusten nuen etxez aldatzeko berriz, Alemania uzteko.

—Itzi, nik uste dut ahalik eta goizen esan beharko zeniokeela Jokini osabarena, berandu izan baino lehen.

—Bai ezta? Oso krudela izango litzateke hiltzorian dagoenera arte ezer ez esatea, eta Manuelek ere nahi izango du Jokinekin egon. Arrazoi duzu, Irene.

Metroak galarazi zidan Jokini egia esatearen aldeko argumentuak botatzen segitzea, baina ematen zuen lortua zegoela. Egiten nekien irribarre gozoena eskaini nion Itziri, enpatikoena (edo interesatuena), eta segituan sentitu nintzen apur bat gaizki, baina, eginda dago azpikeria, eta badira urteak etika nire arduren artetik baztertu nuela, beraz, listo. Beste zerbaitetan pentsatzeko edo, liburu bat zabaldu nuen, ahapaldi bana birritan eta hirutan irakurri behar izaten banuen ere, emozioagatik.

Markatu nauten liburu asko irakurri ditut, bizitza aldatu didatenak ere, ausartuko nintzateke esatera. Protagonista gorrotagarriak dituzten eleberriak gustatzen zaizkit. Horrela maitemindu nintzen apur bat Flauberten Madame Bovary-

rekin: gorroto nuelako, eta, aldi berean, berarengan islatuta ikusten nuelako neure burua. Gorroto ditudan gauzetan nire burua ikustera ohituta nago jada, urteak igaro ditut ahalik eta gutxien inporta ziezadan saiatzen, baina egia da. Gorroto dudana naiz. Bigarren eskuko liburuen azoka batean aurkitu nuen nire beste liburu maiteenetako bat, inork egundo irakurriko ez dituen entziklopedia eta hiztegi zaharren arteko altxor gisa, Charles Baudelaireren *Les fleurs du mal*-en gaztelaniazko itzulpen bat, 1966koa. Hor aurkitu nuen *La belleza*:

*“Reino en el azul, como una incomprendida esfinge;
uno a mi corazón de nieve una blancura de cisne;
odio el movimiento que las líneas desplaza,
nunca lloro y jamás río.”*

Peruk zurrunbiloarena eta basamortuarena esan zidanean poema hau gogoratu nuen. “Zurrunbilo bat eta basamortu bat zara aldi berean. Min ematen zenidan, etengabe, eta barkatu egiten nizun, benetan sinisten nuelako hurrengoan minik emango ez zenidala. Eta berriro ematen zenidan mina. Eta, momentu batean, konturatu nintzen pertsona maltzurra zarela, besterik gabe, eta beti izango zarela, eta utzi nion zugandik gauza onak espero izateari. Eta jada ez zidan minik ematen, ohitu nintzelako zure minera, zuregandik mina espero nuelako. Mina baino ez dakarzu, Irene. Ukitzen duzun guztia erretzen duzu.”

Ez nuen ezer erantzun. Ez zen ezer berria; aspalditik nekien esan zuen guztia. Funtsean, bizitza osoan jakin izan dut. Baina inork ez zidan esan ordura arte.

Begietara begiratu eta horrela esan zidan: “Gaiztota zara”. Horrela, siku, zuzen, dotore eta guzti. Joan egin behar

nuela esan nion, eta tabernatik irten eta negar batean hasi nintzen, ia oinez egiten uzten ez zidan indarraz. Etxera joan eta geneukan garagardo argi guztia bota nuen zaborretara, eta oihuka hasi nintzen eta bota nuen nire amorru guztia. Eta gero negarrez hasi nintzen berriz, baina minetik, tristura ezin handiago batetik. Eta Stand By jarri nuen, Extremodurorena, gutxienez miloi bat aldiz entzun nuen 02:04 segundoa, eta apurtu ez zen garagardo argi botila pare bat salbatu nituen zakarrontzitik, eta haiek edan nituen eta negar egin nuen, eta errepikatu.

Itzirekin metroan egon eta ordu batzuetara deitu zidan Jokinek. (Nik espero nuen, prest nengoen borrokatzeko. Jokin sahats eginda zegoen emozionalki, beraz, abantailaz jokutzen nuen). Amak esandakoa baino apur bat gehiago kontatu zidan. “Momentuz datorren asteburuan itzuliko naiz, baina egoera txarrago jartzen bada, agian denbora luzeragorako izango da, agian baimena emango didate enpresan.” Azkenean. “Arrazoi duzu. Uste dut onena izango dela. Nahi duzunerako ni libre egongo naiz, hemen egin dezakezu lo.” Eta horrelaxe amaitu zen gure deia, ni bere zaurgarritasunak hunkituta, eta bera, zaurgarri, besterik gabe.

Denok dugu ume ameslari bat geure barruan, eta nireak beti eskatu izan ditu desioak edozein aitzakiarekin, baina Peruk utzi ninduenean kasik obsesio bihurtzera arte egin nuen. Eskatzen nuen gauza bakarra zen Peru itzultzea, nitaz oroit zedin baino ez nuen nahi. Oroit nintzala nahi nuen, banekielako min ematen ziola oroitze hutsak, niri min ematen zidan beste. Larunbat guztiz ohiko batean, Zazpi Kaleetan, Perurekin topo egin nezan eskatu nuen, eta desioa bete zen.

Berak urrunera begiratzen zuen, eta nik, lurrera (bizitzan ere antzera egiten dugu) eta ez geunden “ondo”, baina elkarrekin

eroso bai, aspaldiko partez, eta asko eskertu nuen. Musu eman nion ezpainetan eta bera ez zen milimetro bakar bat ere mugitu. Isil-isilik begiratu zidan, ezelako emoziorik erakutsi gabe, eta isilik jarraitu genuen minutu pare batez, ezelako emoziorik gabe, tabernako buila erdian. Etxera gonbidatu nuen, emozio gutxiz, eta berak ia emozio barik onartu. Txortan egin genuen, bai, baina ezelako emoziorik erakutsi gabe, apur bat hutsik geundelako biok jada. Baina elkarrekin egin genuen lo, eta gure emozionaltasun falta horretan, nahiko emozionala izan zen niretzat, aitortu beharra dut. Are gehiago, momentu batean, zoriontasunetik, maiteminetik, hurbil egon nintzela esango nuke, eta batera bizitako momentuan oroitzeari ekin nion. Horretaz amets egin nuela uste dut, gutaz.

Goizeko hamarrak eta hogeita zazpian esnatu ninduen argiak, eta Peru, araiz, joana zen. Malkoak jausten hasi zitzaizkidan masailetan behera, baina nik emoziorik erakutsi gabe jarraitu nuen (kanpotik). Uxue Alberdi, Jenisjoplin: “Goiz absurdo bat zen, heriotza baten edo maitemintze baten biharamunaren antzekoa.” Edo bermaitemintze edo desmaitemintze batena, modu berean.

Askok esan didate harremanetan ditudan arazoak neure buruarekin dudan harremanaren ondorio direla. Ez dut harreman onik neure buruarekin, ez dut maite neure burua. Ez dut onartu ere egiten batzuetan, ez dut aguantatzen. Uste dut jendea ez dela konturatzen ematen duena baino zailagoa dela zeure burua maitatzea, eta sinplea dela pentsarazteko burugogorkeria horrek korapilatsuago egiten du. Eta berriz ere bonbardaketa, ederra zarela eta edozein modutan ederra eta ederra. Ez naiz ederra. Utz nazazue bakean. Ez naiz ederra, eta ez dakit izan nahi dudana, baina badakit ez dudala izan behar. Utz nazazue bakean.

Gehienetan egiten duen moduan, Jokinek ez zidan abisatu hegazkinetik jaitsi zen arte. WhatsApp mezu bat bidali zidan eta handik gutxira etxean agertu zen. Azkenean, Santutxun geratu zen Euskal Herrian egin zituen bederatzi egunetan, osabarengandik hurbilago zegoelako, ez beste ezerगतik. Baina zazpigarren egunean, etxean geundela telebista ikusten, Jokinen telefonoak eten zigun filma. Ez nion kasu handirik egin, baina, musika apaldu zen momentuan Jokin negarrez entzun nuen; ohe libre bat gehiago Gurutzetako ospitalean.

Hurbileko norbait hiltzen deneko prozesu beldurgarria hasi zuen Jokinek: familia eta lagunei abisatu, gauzen bila joan ospitalera, beilatokira deitu, eguna aurkitu hiletarako, eta, pena sentitu, batez ere. Gogoratu eta sentitu, eta dolua pasatzen saiatu. Argi daukat dolua bakoitzak bere erara bizi duela, eta bakoitzak bere erara sendatzen duela, eta Jokinek negar egin eta musika entzun besterik ez zuen egiten, eta niri ez zitzaidan geratu bere ondoan egotea beste aukerarik. Baina hileta eginda eta osaba erraustuta, azkenean heldu zen eguna Jokin Alemaniara itzultzeko, osabarik gabe, etxera lotzen zuen soka nagusia apurtua zen, eta bizitzarekin jarraitu behar zuen, nigandik urrun, baina, gutxienez, azken gau horretan batera egin genuen lo. Hamarrak eta hogeita zazpian esnatu nintzen berriz, baina honetan ez nengoen bakarrik (oraindik) eta Jokinek iratzarri ninduen. “Banoa, Ire”. Eta hantxe geratu nintzen ni. Jada lo egin ezinda, bakar-bakarrik, berriro ere.

Benetan uste nuen osabarena arrazoi nahikoa izango zela Euskal Herrira itzultzeko, behin-betiko, baina orain txokolatezko palmera bat jaten nabil bere garai bateko obsesioaren omenez, eta Perlata entzuten, bera hementxe egongo balitz bezala, kanta

guztiak hasieratik oihukatzen. Benetan espero nuen, eta agian seguruegi nengoen. Non fida, han gal.

Berriz itzuli naiz berdiner. Utzi ninduen Peruk behin eta joan zen Jokin, eta berriz utzi nau Peruk eta berriz joan da Jokin. Berriz bakarrik eta bihotza hautsita. Antzinako Grezian denbora ziklikoa zela uste zuten, eta etengabe errepikatzen zela, bueltaka zebilela. Bada, zikloa berriro hasten da. Batzuen bizitza zuhaitz bat da, norbaiten bizkarrean tatuaturiko zumea, edo kanposantuko zipresa. Besteentzat Kretako labirintoa, nahiz eta mitoan Minotauroa, Teseo edo Ariadna izan. Beste gutxi batzuentzat, agian, zurrumbilo huts bat, edo desertu bat, edo zerbeza (argi) botila bat, erdi hutsik, edo erdi beteta, edo hautsita, edo zabaldu gabe izan daiteke bizitza. Nik beti konparatzen dut nire bizitza Sisiforenarekin. Batzuetan Sisifo naiz, eta besteetan harria, baina mendian gora noa, nekez, izerditan, minez, eta tontorrera ailegatzen naiz, eta dena da ederra oso, denbora apur batean geldirik mirestekoa. Gero harria botatzen didate, edo jausten da, edo akaso nik botatzen dut maldan behera, nahita, neure buruarentzako zigor modura. Tristeia da, desesperatzeko modukoa, akaso, baina beheranzko bidean badator momentu gozo bat non erraz eta batera nekatu barik joan ahal naizen, eta korrika egiten badut haizea aurpegian igarriko dut, harria bere kabuz joango da arrapaladan eta nik ez dut kargutu beharko. Baina behera heltzen naiz, hona, eta berriro harria hartu eta berriro egin behar dut gora, eta berriro nekez, eta berriro minez, eta berriro, eta berriro. Eta ziklo etengabe horretan badaukat kontsolamendu txiki bat, neguko igande goizetan berotzen duen eguzki xume epelaren modukoa: oroituko nautela, ondo edo txarto, baina oroituko nauzuela, eta, hala ez bada, nire esku dagoen guztia egingo dut, oroit nazazuen.

Besotik nork heldu

Aner Peritz Manterola “Euzkitze”
Lizardi BHI
Zarautz

Berandu hoa. Oso berandu hoa, txikita. *Google maps*en arabera, iristeko hamabost minutu falta zaizkin, hire erlojuaren arabera, bost. Ez dun izango hamar minutuz itxaron ez dinan lagunik, familiakorik, kuadrillakorik, parrandakiderik, txortalagunik... heure buruak ere itxaron din hamar minutuz; baina lan-elkarrizketa batek? “Bideak eta denborak bat egin duten unean” hasi zain Anari aurikularretatik. Ez ba. Horixe ez ba. Bidea badaukan, baina denbora...

Joder. Joderrrr. Falta zitzainana. Hik denborarik ez baina galdu egin behar. Zebrabidean amona bat erori dun. *Honek ere ez al zeukan besotik nork heldurik bidea gurutzatu bitartean?* Ba ez. Ez zeukan orain altxatzen lagunduko dionik ere. Eduki, hori bai, edukiko dizkin 90 urte. 100 akaso. Bastoia eskuan eta bera lurrean. Kotxerik ez zain, heu bakarrik. Etorriko diren kotxeak, gainera, ez ditun zain egotera etorriko.

Bale, horraino oso kezagarri; baina joe hi, oraindik semaforoa berde zegon. Joango hintzateke laguntzera, baina ez daukan astirik. Zutituko dun semaforoa gorritzerako. Hi ez bahengo hil egingo al litzateke ba? Keba. Beti esan izan dinате okerren dagoenari eman behar zaiola laguntza

gutxien, sufrituko duela momentuan, baina bakarrik ikasi behar duela hortik irteten. Ba benga, amona. Laguntza gutxi.

Ikusten? Zutitu dun. Ez hinduen behar.

19:13. Ez zegonan denborarik amonari laguntzeko, baina hik begira pasatu dun laguntzen pasa izango hukeenaren denbora bikoitza, katu beltz baten biboteak laztanduz bezala. Hamahiru minutu berandutu zain azkenean. Tinbrea jo dun.

—Bai?

—Kaixo. Angela Iturbe naiz. Barka berandutzea, arazo bat izan dut.

Ze arazo izan dun hik? Inpuntualitatea? Graziosa haiz behintzat.

—Lasai. Sartu.

Seigarren pisua. Eskerrak igogailua daukanan, bestela... Nahiko korrika egin izan ez bahu bezala. *Aizan, erraz egingo niken gehiago ere, e!* Ja. Ez hintzen kirolerako jaio, tia. Onartu.

—Egun on berriro —aspalditik esaten dun egun on egunaren edozein ordu dela ere. Akaso ez hunan momenturik egokiena, baina inkontzientea zer den... Txikitatik erakutsi izan dinате eskolan egunak 24 ordu dituela, beraz egun on batek ere bai. Gauerdiko hamabietan ezin esango dun *arratsalde on*. Baina *egun on*? Ez dun *goiz on* esaten. Ba kitto.

—Arratsalde on, Angela — ez dun konturatu hire *egun on* iraultzaileaz, pena—. Eseri hemen. Berehala naiz.

Segituan ohartu haiz hau ez dela hire lantokia izango dena. Izango bada. Hau jefe jaunaren pisutxo bat dun: bi gelatxo eta hogeit metro karratu. Hori bai, tipoa guapo askoa. Hiri gustatzen zainan bezalaxe gainera, postu handia baina txandala eta sudadera. Eta nola geratzen zaizkion. *Olé!* Ilea bustia zeukan gainera, dutxatu berri baletor bezala. Ze sexytasun. Ez din bost urteko aldea baino gehiago aterako.

Mutilak gustatuko balitzaizkin, buf...

Halakoetan beti gogoratzen zain Aingeruren teoria. Noski, nola bera superbisexuala den. Oso bisexuala e. Batzuetan harritu egiten hau. Berak beti esaten din ez duela ulertzen nola ez dagoen mugimendurik heterosexualitatearen eta homosexualitatearen aurka. Berak sortuko lukeela gustura. Ze noski, politikoki inkorrektoa dun esatea ez hintzatekeela beltzekin liatuko. Politikoki inkorrektoa eta arrazista. Arrazionalki arrazista. Beraz, zergatik ez da sexista mutilekin liatuko ez hintzatekeela esatea? Noski, gainera normalizat hartzen duzue.

Hiri hire gustuek esaten din ate ez dunala konpartitzen teoria aingerutiarra, baina batzuetan pena pixka bat ematen din oraintxe paretik alde egin dinan tipoaren modukoengatik. Ze egingo dun ba.

Itzuli dun. Eskerrak. Lasai begiratu diezaioken horrela! Lasai, bai, ze urduri ez hago. Horixe. Lasai hago.

—Kaixo berriz, Angela.

—...(isiltasun deseroso bilatutako bat). Alua haiz ba.

—Beno, zer moduz?

—Zu ondo, eta ni? —hasi gaitun...

—Jajaja —ez zion grazia putarik egin, ja, ja, ja—. Beno, ez daukat asti gehiegirik, amona kalean erori omen da eta txorkatila bihurritu du. Ospitalera joan behar dut.

Gatozen harira, beraz.

Ze ona amonarena. Ausartu hadi eta esaion: *a bai, ikusi dut. Eta ez diot lagundu*. Ausartu ba, benga. Zain zegon. Ajam. Ez e? Harrokerian etorri haiz, baina hainbeste ez antza. Pentsa lehengoa, badaezpada ez hunan berandu iritsi nahi. Harro usteko koldarra haiz.

—Ea ba, Angela. Zure *curriculum vitae*a —latin perfektuan irakurria, latin perfekturik balego— irakurri dut. Beno, saiatu naiz.

—A! Jaja. Txineraz nekiela demostratzeko idatzi nuen hala, bai. Ez zedin frogarik gabeko esan hutsean geratu. Ondo ezta? —*Google Translate*.

—Bai, beno. Itzuli dut nola-hala eta konturatu naiz ez duela funtsezko ezer jartzen. Baina ondo dago, e. Dena ez da funtsa.

—Eskerrik asko ba.

—Ea. Ikusi dut ez daukazula esperientziarik. Normala da. Baina gaztea zara, eta gazteek ez duzue gogoia besterik izaten.

—Eta beharra.

—Eta beharra.

Isiltasuna egin dun une batez, egin eta egon. Batzuetan gustatzen zain isiltzea. Eta isilaraztea... Halaxe geratu dun ba, mutu. Esnatuko dun, lasai.

—Mmmmm... barkatu, komunera joan behar dut. Non dago? —ez dakin isiltasuna mozteko edo luzatzeko egin dunan.

—Atzeko gela horretan, sartu eta eskuinetara dagoen atea.

Sartu haiz. Eskuinetara dagoen atea. Hortxe zegonan, eskuinetara; kasualitAtea. Uste huena baino garbiago zegon komuna egia esan. Ez hintzen isiltasunarenagatik bakarrik joango, noski, eta pixa egin behar. Ez irteten ordea. Ederra izaten dun ba, nahia eta ezina irudi batean. Amonak halaxe egiten zinan eta iturria ireki dun. Tzzzzzzz ere egiten zinan, baina hori ja gehiegizkoa iruditu zain, ezta? Ulertzen dinat, iturriarekin nahikoa. Iturri bat zabaldu behar bestea itxita dagoenean.

Kanta zaharrak dioen bezala, ura bere bidean doa. Eta behingoz pixa ere bai. Tipoa kezkatzen ere hasia izango dun honezkero. Izenik ere ez din esan, hi. Beno, berdin zain. Itxi iturria. Bota bonba. Ispiluari begiratu. Orraztu. Ez orraztu. Erabaki. Bale, ba, ez orraztu. Brageta itxi. Atea ireki. Orain ezkerrera. Beste atea ireki. Ez egin irribarre eta ez isiltasunik hautsi. Ez daukan presarik.

—Moldatu zara, ezta?

—Hemen nago behintzat, jeje.

—Beno, joan egin beharko dut eta... azken kontutxo bat: mutilik baduzu? Haurdun geratzeko asmorik?

—Keba, bollera naiz.

Aber, parentesi bat. Ez dakin zergatik haizen bollera, berez berdin zain. Baina begiratu ingurura. Zenbat bollera ezagutzen ditun? Joder, hori ez. Ez konparatu heteroekin, ze hori ya bai dela eraikuntza sozial bat. Serio. Zenbat marikoi eta zenbat bollera ezagutzen ditun? Bale, ahaztu Aingeru, baina bota. Askoz bollera konfesatu gehiago ezagutzen ditun. Eta ez dun emakume gehiago ezagutzen ditunala, e. Ez ez. Eta hori bi gauzategatik dun:

1- Gizonen lumatzeko beldurra. Lumatu daitezen eta ditzaten, arkeria eta harrokeria, gizona eta izana... nor da aldi berean gizon, normatibo eta homosexual?

Inor ez. Zero. Zaila dun ar batentzat armairuan sartu dutela onartzea. Hik ere akaso ez hukeen onartuko inguru hetero batean. Ez zain iruditzen.

Eta batez ere **2- Bolleraren emakumetasuna.** Emakumeak ditun bollerak eta bollerak emakumeak ditun. Eta emakumeok, zapaldutasun horretan, zapaldutasun bikoitzak, hirukoitzak eta laukoitzak jasaten dituzue. Ohituta zaudete. Hori batik bat: ohituta zaudete. Hizkuntza bat ikasi duenak errazago ikasten din bigarrena. Borroka baten parte dena errazago izango dun bigarren baten parte. Edo ezagutzen dun feminista ez den bolleraren bat? Ez ezta? Horixe ba.

—A. Oso ondo iruditzen zait -ez hunan ba gaizki ari orain arte. Baina eske ez zain inporta zer iruditzen zaion.

—A.

—Horixe ba, Angela. Ez daukat besterik esateko. Kontratatuta zaude. Datorren asteburuan hasiko zara, bai?

Aurkeztuko dizkizut lankideak. Neu ere bertan izango naiz. Esango dizut ze ordutan. Bidaliko dizut kokapena. Mila esker.

—Ez horregatik —harro hori, ze kostatzen da ba zuri bat.

—Goazen ba.

Eta bazoazte. Itzali dizkin argiak. Ireki din atea. Ez din giltzaz itxi. Eskaileretatik jaitsi zarete. Eskerrak behera zen. Eskerrak behera zen, bai. Lau solairu jaitsi. Gelditu egin dun. Goitik behera begiratu hau. Aztertu. Ez dun jakin zer egin. Ez dun ezer egin.

—Hik funtzionatuko dun, ikusiko dun.

Eta hik ez funtzionatzerik nahi. Irribarretxoia egin din. Ez dion itzuli. Bazoazte berriz behera. Beste bi solairu. Papo. Portaleko atetik irten eta bazoazte. Bera eskuin, ba hi ezker. Gero hartuko dun eskuinera, orain doala.

—Beno, Angela, esandakoa. Idatziko dizut xehetasun gehiago emanaz. Zuk ere eskatu behar izanez gero. Ondo pasa astea. Egongo gara.

—Animo amonarekin.

—...

—...

—Eta zuk aitonekin. Aber, badakizu nolakoak joango zaizkizun. Aitona lehorrak. Bi zentzutan. Prestatu.

Hire bidean abiatu haiz, pauso txikika. Imajinaziotik ezabatu nahian ze zakil zahar jango dunan astebete barru,

plazerez gainera. Eta gogoratuz nola deitu zintaten azken parrandan Aingerurekin musuka ari hintzela:

—Putá.

Beste behin

Jone Urbieta Lejardi
Ondarroa BHI
Ondarroa

Datozen hogeita lau orduak behin eta berriz errepasatu ditut, pausu guztiak buruz dakizkit, ezin daiteke akats bakar bat ere egon.

Beti pentsatu izan dut, heriotzak ezustean harrapatuko nauela, are gehiago nire ingurukoak. Guztiok gaude hiltzera kondenatuta jaiotzen garen une beretik. Heriotza, bizirik gaudenean ezagutzen dugu, gu, geroago harrapatzen bagaitu ere. Bizilaguna hiltzen denean, etxeko norbait betirako lozorroan gelditzen denean, nahiz artista ezagunen batek azken hatsa bota ostean somatzen dugu heriotza gugandik hurbil eta izaki maltzur baten antzera irudikatzen dugu.

Heriotza horren hurbil nabari dugunean, aukerak aprobeixatu ez izana damutzen zaigu, gerorako utzi eta inoiz egin ez ditugun gauzen inguruan pentsatzeari ekiten diogu eta egin ez izanaren errua heriotzari leporatu, goizegi iritsi izan balitz bezala. Heriotzatik horren hurbil gaudenean, hainbeste desio dugun hori egitera ausartzen gara. Bizitza osoan amorratzen egon eta hark ekarriko dituen ondorioen beldur garelako, aurre egiteak nagia ematen digulako edo kaltetuak izan gaitezkeelako, bertan behera gelditzen da egitera ausartu ez garen hori. Baina noski, behin hilda, ez dago arduratzerik, damutzerik, ezta sufritzerik ere.

Hogeita lau ordu: hiria trenez gurutzatu dut, unibertitateko garaian egin ohi nuen lez.

Treanean egon diren gainerako bidaiariak behatu ditut. Neska gazte bat bizkar-zorro batekin, ilea koloretako zapi batez mototsean bilduta, oin bata izterraren azpian sartuta eta azazkalei hozka egiten, bidaiaria zoragarri bat zain balu bezala. Atzerago adineko gizon bat, ni baino zaharragoa, paseatzera atera dela imajinatu dut eta etxera itzultzeko trena hartu duela.

Lehenengo geltokian emakume bat igo da, jantzi dotore batekin. Lanean postu garrantzitsu bat duela dirudi, zuzendaria izango da agian, edo zuzendariordea, lanetik etxera doa leher eginda edo besterik gabe hileta batera doan emakume gajo bat da.

Nik, bidaiariak treanean sartu izanaren arrazoiak imajinatu ditut, beraiek, ordea, ez dute nirea inolaz ere asmatzerik.

Hogeita hiru ordu eta hogeita hiru minutu: trenetik jaitsi eta jendez gainezka dauden kaleetara gerturatu naiz. Jendartean murgildu eta hiriko zarata eta usain desberdinak dastatu ditut bide batez.

Norabiderik zehaztu gabe egin dut oinez mutiko bat kalean gitarra jo eta kantuan aditu arte, *Kansas* talde estatubatuarraren lan ederra. Begira geratu naiz baina begiak itxi ditut eta haren ahotsa burmuineraino iritsi zait. “Don’t hang on, nothing last forever but the earth and sky. It slips away. And all your money won’t another minute buy. Dust in the wind, all we are is dust in the wind.” Abestiaren letrak mailu batez kolpatu nau, melodia hautsi egin da nire barruan, milaka piezako puzzlea deseraiki.

Entzumena desaktibatu eta haurtxo baten txokolatzeko muturrari begira geratu naiz, hipnotizaturik bezala. Gosaritarako zukua besterik hartu ez dudala gogoratu eta gozo denda batean sartu naiz.

Hogeita bi ordu eta berrogeita bat minutu: dendariak nire gosaria prestatu bezain laster, ordaindu eta dendatik atera naiz, esku batean *croissant* bat paperezko poltsa marroi batean eta eramateko kafea bestean. Denborarik galdu gabe abiatu naiz aireporturantz, taxiz.

Aurreikusi bezala, aurrerapenarekin iritsi naiz eta plastikozko aulki hotz horietako batean eseri naiz, zain. *Croissant*- a jateari ekin diot eta zain geratu naiz, zeren zain nagoen zalantzan jarriz. Itsasoa zeharkatu zuen nik idatzitako gutunak eta ez nuen erantzunik jaso. Ez dut, ordea, gutunik behar etorriko dela jakiteko. Bere zain nago, zeren zain nagoen deskubritzeko asmoz.

Batzuetan, hartaz, gutaz, gogoratzen naiz, zeinen zoriontsuak ginen. Ez ginen gure tolesgabetasunaz ohartzen. Guztia oso erraza izan zen ordura arte, eskolatik irten, etxerako bidean elkarri kontuak kontatu, nire logelako ikasmahaian eseri eta etxerako lanak egiteari ekin. Bukatzean ohe gainean etzanda geratzen ginen, barre mordo bat egiten genuen telesail amerikarren kontura eta den-dena kontaktzen genion elkarri. Ia ia dena. Afaltzeko ordua iristen zenean etxera joaten zen eta biharamunean, berdin.

Ez zegoen horren ezkutuan, zoriontasun eta inozentzia horren azpian, errutina hura apurtzeko, birrintzeko, deuseztatzeko nahi bat gure barrenetan, elkarri muxu ematearen nahia, elkarren zaporea dastatzeko nahia. Baina, biok neskak ginelako edo, ez genuen nahi hura sekula asetu.

Elkar agurtzeko momentua iritsi zenean ez geunden prest bizitzari aurre egiteko, ezta gure kuttunengandik aldentzeko ere, horregatik harrapatu zuen ezustean hasiera berri batek Suitzarako bidean, aitarekin.

Hogeita bat ordu eta berrogeita lau minutu: itxarroteak urduri jarri nau eta altxatu egin naiz, oinez ibili eta gorputzeko tentsioak askatzeko saiakera eginez. Urteak dira elkar ikusten ez dugula, urteak elkarren berri izan gabe. Azken aldian, haren arrastoari jarraituz beragana iritsi naiz. Orain, aldiz, bera nigana iritsarazi dut.

Pentsatu dut badela ordua beste behin elkar ikusi eta kontuak kontatzeko, beranduegi izan baino lehen. Orain, helduak izanik, elkarri helduen moduan begiratzeko garaia dela iruditu zait.

Azkenekoz elkar ikusi genuenean, aireportu honetan bertan, begiak itxi eta negar-malkoek irrist egin zidaten aurpegian behera, betirako agurra zirudien, amaiera.

Baina denbora ez zen gelditu, ez zen bukatu, ez zen agortu.

Orain orduak gastatzear daude, bizitzaren kronologiako azken atala bukatzear. Erlojuari erreparatu diot eta lasterketa haren kontra beharrean neure buruaren kontra dela konturatu naiz, eta garailea neu izango naizela gertatzen dena gertatzen dela.

Hogeita bat ordu eta hogeita sei minutu: “Zúrich-etik datorren hegaldia atzerapenarekin iritsiko da” espero ez nuen zerbait gertatu da. Atzera-kontua hasita dago jada eta ez dago atzera-bueltarik, plana hankaz gora jarri da. Nire

bizitza ziztrin honetan, segundoak, minutuak, orduak, oxigenoa bailiran kontsumitu ditut inolako garrantzi eta baliorik eman gabe. Aukerei ihes egiten utzi diet damutu eta atzetik korrika harrapatzen saiatu gabe. Orain, ordea; beranduegi da, beranduegi galdutako denbora berreskuratzeko, damutzeko.

Gaurko eguna egutegian errotuladore gorriz ondo markatuta neukan, azkena izango balitz bezala. Gaurko eguna nola igaro pentsatzen aritu naiz denbora luzez, ahalik eta gehien gozatzeko asmoz, azkena izango balitz bezala. Beti pentsatu izan dut, egun ezin hobe bat zain daukadala nonbait. Presio eta buruhaustek alde batera utzi eta gizarte madarikatu honetatik ihes egiteko modu bat, bizitza osoan aukera bakar bat. Egun horretan, zeure janari gogokoena jango duzu, gehien gustatzen zaizun musika entzun, eguraldi paregabea usaindu eta nahi duzun konpainiaz gozatu. Gaurko eguna aukeratu dut perfektua izan dadin eta neure kabuz aukeratzeko ahalmena banu bezala prestatu dut, azkena izango balitz bezala. Eta huts.

Hogeita bat ordu: ez daukat hegaldiaren berririk. Plan perfektua zapuztu dit eguraldi txatxu honek, ez dut denbora nire esku ahulen artean harrapatuta izaterik ezta honi aurrera egitea oztopatzerik edota atzera buelta egiterik ere. Aldean neraman guztia zakarki hartu eta aireportutik atera naiz, pausu bortitzak emanez.

Nire bizitzako azken eguna beste egun baterako uztea erabaki dut, beste behin.

Itsualdia

Amaur Puente Otero
Pasaia-Lezo Lizeoa
Pasaia

Besoa maindire azpitik atera eta mesanotxea haztatzen dut botoia sakatu arte. «*Goizeko bederatzia eta zazpi*» informatzen dit erloju adimendunak. Ahots metalizatuaren esanei jaramonik egin gabe, burua burkoan hondoratzen dut eta neure pentsamenduetan murgiltzen naiz, azken urte honetan egin dudan legez. Hori da nire ustetan, behintzat, igaro den denbora.... Urte bat. Duela urtebete honezkero Komunen Ganberan egon nintekeen, agure garrasizaleez inguratuta. Duela urtebete, nire izena Erresuma Batuko kazeta eta albistegi guztietan azaltzen zen. Duela urtebete emaztearekin borrokan arituko nintzatekeen, gau horretan ikusi beharreko filmari buruz. Alferrikan, jakina. *Love Actually* ateratzen zen beti garaile, Gabonak ez baziren ere.

Duela urtebete, nire bizitza aski normala zen. Orain, ordea, dena galdu dut. Boterea. Garrantzia. Emaztea. Pelikulak. Eta baita ikusmena ere, Lur planetako beste zazpi mila milioi eta zenbait biztanlerekin batera.

Itsualdia izena jaso zuen planeta osoan (eta ez Ameriketako Estatu Batuetan soilik, zientzia-fikziozko film eta liburu distopiko eta post-apokaliptiko guztietan ikusten den bezala) eragina izan zuen fenomenoak. Isilean jaio zen, Hegoaldeko Asian; India, Bangladesh, Pakistan eta

Afganistan. Hirugarren Mundu Gerrako hondamendi nuklearraren aztarna berankorrekin lotu genuen tupusteko ikusmenaren galera orokortu hura; Estatu Batuek Ipar Koreari atxikitu zioten Itsualdiaren erantzukizuna, baina gatazka berri bat ekiditearren, eta herrialde asiarra duela zortzi urteko gudan suntsitu zela jakinik, ez zitzaion aparteko garrantzirik eman arazoari. A ze hutsa, barkaezina!

Itsualdia laster barreiatu zen, mexikar, ukrainiar, australiar eta mundu osoko biztanleen begiak bat-batean erretzen den bonbilla bat bezala itzaliz. Orduan larrialdi-egoera deklaratu zen, eta Itsualdiak, begirunerik gabe *–hitz-jokoa baliagarria bedi–*, planeta burusi ilun batez estaltzen zuen bitartean, Nazio Batuen Erakundeko estatu operatiboek biziraupen-plan bat moldatzen ahalegindu ziren. Negoziaketak latzak eta tirabiratsuak izan ziren, eta alferrikakoa da huts egin zutela esatea.

Alferkeriari aurre egin eta salto batez ohean esertzen naiz. Bederatziak eta hogeita bost dira. Makila zuria eskuratzeko luzatzen naizenean, ustekabeko izpi batek buruko mina eragiten dit. Ez da itsutasunean iluntasun amaiezinarekin batera *ikusten* ditudan zetaka psikodelikoak bezalakoa; iraunkorra da, sendoa, ziztatzailea. Betazalak altxatzen ditut, astiro, kostata eta beldurrez. Eguzki-izpi batek bete-betean jotzen nau, eta burua alde batera egin behar dut. Arraioa!

Hatzak koltxoian iltzatu eta begiak kliskatzen ditut, sinistu ezinik. Pixkanaka mesanotxearen, alfonbra koloredunaren eta nire pantuflen irudi lausotuak ikusten ditut. Behin nire begiek aurrean dudana enfokatzea lortzen dutenean, ohetik altxa eta aitaren batean eskuratzeko ditudan lehenengo arropak janzen ditut, hatz dardartiez. Ate nagusia erabat ireki eta 10 Downing

Streeteo eskailerak estropezuka jaisten ditudanean, zeharo lur jota gelditzen naiz. Egia da Europatik irten zenetik Londresek ez duela lehengo lepotik bere burua, baina ez nuen jende asko ibiltzen zen kalea mortu aurkitzea espero. Ez al dute ikusmena berreskuratu izana ospatu nahi?

Kalean barrena ibiltzen hasten naiz, Westminsterreko abadiarako bidean. Begirada zero ilunera altxatzea otutzen zait, euria egingo duenez frogatzeko. *Don't tell them you can see*, dio hodeien artean azaltzen den holograma modukoak. Horregatik ez dut inorekin topo egin bidean zehar? Zeintzuk dira *haiek*? Ezkutatu beharko nuke, ala oinez jarraitu? Inor zelatan baldin badago dagoeneko ikusi behar izan nau; ezaguterraza naiz oso, beraz, zauritu nahi izan banindute, hilda egongo nintzatekeen dagoeneko. Arrazoibide zoro hori jarraituz, zubia gurutzatu eta London Eye-ra gerturatzen naiz, hausnartzeko giro egokia lortzeko asmotan. Txartel-leihatilara iristen naizenean, ordea, pikutara doaz James Bond-en erako nituen plan guztiak.

Tokian izoztuta gelditzen naiz erabat, begirada aurrean dudan neskarengan iltzatuta. Bera, era berean, salmenta bulegoaren kristalezko paretara arrimatzen da. Ikus nazake, zalantzarik gabe, baina bere imintzio larrituak ikusirik *haietako* bat naizen ustea izan behar du. Berarengana gerturatzen naiz, bost urteko agintaldiak irakatsi dizkidan pazientzia eta kontuarekin. Mesfidantzaz behatzen du luzatzen ari natzaion eskua.

—Walter Dixon naiz, Erresuma Batuko Lehen Ministroa.

Sorginkeria bat esan berri banu bezala, neskak bere jarrera autodefentsiboa utzi, bostekoa ematen dit eta bere burua aurkezten du, nik egin dudan moduan.

—Irina Anderson, astrofisikaria eta NASAko astronauta.

Zer esan jakin gabe begiratzen diot. NASA? Urteak dira, britainiarrok Europatik atera eta iparramerikarren Aliantza Handiari batzeari uko egin genionetik, bi herrialdeen arteko harremana erabat suntsituta dagoela. Nola demontre heldu da Londresera? Irinak, nire erreparoa nabarituta, bere burua desenkusatzen du.

—Nazioarteko Espazio Estazioan ibili naiz azkeneko urte eta erdian, energia iluna aztertuz. Aginduak jasotzeari utzi genion eta ezin izan dugu orain arte lur hartu. Orbitan genuen kokalekuaren ondorioz hemendik pare bat miliatako distantziara erori ginen, orain duela bi gau. Nire kide bat, komandantea, momentuan hil zen. Besteok zaurituak gaude, baina bizirik, bederen —etenaldi bat egiten du, ezbaian—. Zer gertatu da hemen? Zer esan nahi du zeruko mezu horrek?

Dauzkadan aukera guztiak aztertzen ditut. Gauzak dauden bezala, ezin diot beharbada hoge miliatako erradioan aurkituko dudan pertsona bakarrari bizkarra eman. Herenegun berak kontatu didan istoriarekin bat datorren trumoi baten antzeko dunbotsa aditu nuen, hortaz, egia esaten ari da. Eta britainiarra naiz, jainkoarren. Ezin dut betebeharraren zentzuan amore ematea saihestu. Lagundu egin behar diot.

—Eraman nazazu zure kokalekura, eta ahal dudan neurrian zalantza guztiak argituko dizkizut.

Kalaka luze eta sakon baten ostean Tower Bridgera iristen gara, gutaz gain gizakirik ez agerian. Zubiko dorre batera igotzeko gaudenean, haize bolada batek Irinaren ilea nahaspilatzen du. Aitaren batean orrazten du, baina bere

garondoko tatuajea ikustera iristen naiz. Izar gorria, zirkunferentzia urdina inguruan, Irinaren azalak ordezkaturako fondo zuria... Aliantza Gorriaren ikurra dirudi, Ipar Koreak Hirugarren Mundu Gerran erabilitakoa. Baina... ez du zentzurik. Zergatik...? Nolatan...? *«Amerika Kapitainaren ezkuaren sinbolo alderantzikatua izan liteke»*, pentsatzen dut. *«Ez du zertan ezer esan nahi. Ustekabe bat da, frikada bat besterik ez»*.

Atzean uzten dudan eskailera-maila bakoitzeko errepikatzen dut hori, baina ezin dut susmo txarra uxatu. Nola edo hala, beranduegi da atzera egiteko; beraz, bihotz hartuta zoru gardenetako pasabidera jarraitzen dut Irina. Turistaz gainezka ikustera ohituta, gogoratzen nuen baino zabalagoa da. Erdibidean, lurrian eserita, dozena bat pertsona daude, asiarrak guztiak. Txinatarrak, vietnamdarrak, thailandiarrak, batek daki! *«Errusiarrak eta iparkorearrak besterik ez dira falta Aliantza Gorria osatzeko»*, otutzen zait, olgetan-benetan. Irinak atzera egiten duen aldi berean, asiarren artetik hogeita bi-bat urteko mutikoa altxatzen da. Txinatar erako begiak ditu, masail potolo samarrak eta irribarre maltzurra. Bere ile mozketaren bereizgarriak nire aurreneko susmo txarrak areagotzen ditu, bere burua aurkezten duenean guztiz baieztatzen direnak.

—Ongi etorri, ministro. Kim Jong-Seun naiz. Denbora luzea daramat zu ezagutu nahian.

Begirada atzera botatzen dut, Irinak eta ez dakit nondik atzera den gizon ilehoriak bidea mozten didatela ikusiz. Kale itsuan nago.

—*Spasibo, Irina i Ivan. Ty mozhesh' uyti.*

Aipatuek buelta eman eta eskaileretatik behera desagertzen dira, eta hizkuntza ezezagun batean mintzatu ostean, berdin egiten dute gainontzekoek. Bakarrik gelditzen gara, eta ezer esan gabe, Kim Jong-Un diktadore ohiaren seme gaztearengana gerturatzen naiz, lehen bururatutako txiste makabroa zuzena zela burutik kendu ezinik.

—Hiltzat jo zitzaizun —hasten naiz, zer beste esan ez dakidala.

—Herritik atera ninduten estatubatuarren inbasioaren aurretik —ihardesten du ingeles perfektu batez, irri zuri batez lagunduta—. Siberian ezkutatu naiz orain arte

—Zuek sortu zenuten Itsualdia? —baieztapena da, galdera baino.

—Bai.

—Nola? Zergatik?

Mutikoak irribarre egiten du, nire jakin-minarekin txoratuta.

—Zortzi urtez egon gara birusa diseinatzen, sortzen eta hobetzen, laborategi eta teknologia aurreratuekin, zeinarekin Wachowskitarrak bakarrik amets egin baitezakete, iaz ezagutzen duzun bertsio gorenarekin eman genuen arte. Zure bigarren galderari erantzunda, nahiko argi dagoela uste dut, ezta? —orain doinu harroa erresumindu bilakatzen da—. Hamalau urte besterik ez nituen, eta Estatu Batuek familiarik gabe utzi ninduten. Etxe eta herririk gabe. Bizitza hondatu zidaten. Begia begi truk eta denok itsu.

—Eta horretarako mundu osoa itsutu behar zenuen?
Baita zure aliatuak ere?

Bere hitzek ikara ematen didate, baina ahalik eta hoberen disimulatzen saiatzen naiz.

—Nahiko kaltetuak atera ginen gerratik, eta denbora hartu behar genion Estatu Batuari kontraerasoa burutzen genuen bitartean. Dena primeran ateratzeko beharrezkoa zen sakrifizioa, baina behin prozesua amaituta, esnatu nituen. Birusa kontrola dezaket, eta nahi dudanean desaktibatatu.

—Hori da, beraz, nirekin egin duzuna? Esnatu egin nauzu. Zergatik ni?

—Zurekin hitz egin behar nuen, Walter. Gudaroste handia dut, baina ez nahiko nukeen bezain trebea. Gainera, Itsualdia huts egiten hasi da eta pertsona batzuk ikusmena berreskuratzen ari dira. Arrastotan sartuta izan behar ditut nire misioa burutu bitartean, horregatik zeruko holograma. Dramatikotasun puntu kitzikagarri bat du, ezta?

Burutik dago. Erabat jota.

—Beraz, ondo ulertu badut, nire laguntza behar duzu Estatu Batuak erasotzeko. Nire armada. Zerk pentsarazten dizu lagunduko zaitugula?

—Argi dago. Nire arerioen arerioa nire laguna da, ez da hala? —besoa nire sorbaldetan ipini, eta zaplada batere ez adiskidetsua ematen dit—. Zuk eta zure herritarrek Estatu Batuak txikitzen lagun iezadazue, eta trukean eraikiko dudan mundu berrian leku bat bermatuko dizuet.

Hausnartzeko denbora utziko dizut, ados? Erabaki zuzena hartzen jakingo duzula espero dut.

Pasabidean barrena urruntzen den heinean, bere azkeneko oharpenak nire buruan burrunba egiten du. Berrogeita bost urteko bizitzan ez naiz inoiz horren bidegurutze larriaren aurrean aurkitu. Egia da Estatu Batuen eta Erresuma Batuaren arteko harremana ez dela preseski urrea diamantearekin, baina Kim Jong-Unen kopia maltzurra, nartzisista eta batere ez fidagarriarekin elkartzea ez dirudi ideia ona. Bere Itsualdi madarikatuak heriotza mordo eragin ditu, ikusmen galeraren aurrean euren bizitzarekin jarraitu ezinik urka-soka edo pilula itxurako bidezidorra hartu zutenena. Baina, bestetik, zer gertatuko litzateke ezetz esango banu? Ez ninduke bizirik utziko, bere egitasmoa jakinarazi bainezake, eta ziurrenik britainiar orenen aurka egingo luke. Agintea eskuratzean Gilen V.aren aurrean eginiko promesa oroitzen dut. Gauza orenen gaintik nire herritarrak babesteko konpromezua dut, baina... Zein da irtenbide egokia? Zer dago ondo eta zer gaizki? Haiek zoriaren baitan uztea, ala diktadore odolzale baten txotxongilo armadunak bihurtzea? Zintzotasunez hil... ala bizi eta men egin?

Tamesis ibaiaren joan-etorri geldoari begira, gogoeta luzean murgiltzen naiz. Ez dakit zer egin. Behin irakurri nuen bezala, “Ez dakit bekatari den ala ez. Dakidan gauza bakarra hauxe da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala”.

Tren bete itsaso

Maddi Zabalo Mateoz
Arratia BHI
Igorre

“Ama, itxaron: arrainei kontatu nahi diet zer egin dudan gaur.” “Agate, berandu gabiltza, eta ez egin hitz arrainei, jendeak usteko du zoratuta zaudela.”

“Ama, uste duzu arrain horiek inoiz egongo zirela itsasoan? Eta, ez badira egon, aiton-amonek kontatuko zizkioten istorioak bainera urdin handiari buruz, amona Purik baserriko istorioak kontatzen dizkidanean bezala, ezta?” “Agate, arrainek ez daukate familiarik, ez die ardura, eta arrainontzi horietan jaio dira, ez dakite itsasoa zer den.”

Agatek, bere adineko ume guztien modura, galdera handiak ditu hain buru txikirako, arrainei eta boligrafoei eta lanparei eta kaleko eskaleei eta zeruari eta zapatei eta bainuontzi urdin, handi, gaziari buruz. Larru beltzeko zapatak janzten ditu beti amak. Punta zorrotzeko eta takoi baxuko zapata beltzak, oinez dabilenean klok-klok-klok zarata egiten dutenak. Hain da txikia Agate, gehienetan hankak bakarrik ikusten dizkiola jendeari, eta, jakin ez dakien arren, zapatek ematen diote jendeari buruzko lehen iritzia. Mundua milioika zapata pare besterik ez da, azken finean.

Amaren zapatak ez zaizkio asko gustatzen. Dotoreziaz, seriotasunez eta soiltasunez mozorrotzen dute muin-muinean

direna: hoztasunaren, asperduraren eta noraezaren alegoria hutsa. Larru gogorrez daude eginda, barru-aldea euriak ez dezan busti, eta amaren larrua ere horretarako da hain gogorra, pasio lurtarrendandik inpermeabilizatzeko bere izaera kuadrikulatua. Agatek ez litzuzke ulertuko berba horietako asko, baina, funtsean, ados egongo litzatekeela uste dut.

Eskolatik irtetea beti geratzen da animalia-denda bateko arrainei begira-begira, haiekin hitz egiten, inork ez dielako kasurik egiten. Nagusitan arraina izan nahiko luke, ezkata koloretsuekin eta isats zorrotzarekin, eta batzuetan saiitzen da bainuontzian burua sartzen eta arnasa gordetzen, baina begietan xaboa sartzen zaio, eta sudurrean ura, eta arnastetika ateratzen du burua uretatik.

Amak behin, eskolatik irtenda, gizon handi-handi batengana eraman zuen Agate. Gela zuri batean sartu zuen, ume alaien argazkiak zeuzkana leku guztietatik, eta gozoki pila handi-handi bat kristalezko ontzi batean. Zapata marroiak zituen gizonak, handi-handiak, eta besaulki handi-handi batean eserarazi zuen, galdera asko egin zizkion, eta bere esku handi-handiekin koaderno batean gauza asko idatzi zituen. Gizon horrek marrazkiak erakutsi zizkion esateko ea zer gogorarazten zioten, eta Agatek “makarroiak”, “nire andereñoaren bekokiko garatxo” edo “Txanogorritxoren otzara” erantzuterakoan lasai asko geratzen zen gizon handi-handia, baina behin “dendako arrainak” erantzun zuen eta segundo batez serioago jarri zen eta koadernoan, letra handi-handiz zerbait gehiago idatzi. Horren ostean bere lagunei buruz galdetu zion luzaroan. Agatek pentsatu zuen lagun gutxi edukiko zuela, eta berarekin egon nahiko zuela parkean. Gonbidatzeko puntuan egon zen, baina konturatu zen, lagunik ez bazeukan,

seguruenik, besteek esandako dena idazten zuelako zela, eta ez zion ezer esan, badaezpada ere.

Gizon handi-handiak denari buruz galdetu zion, eta Agate pixka bat haserretzen hasi zen, zergatik jakin nahi zuen hainbeste berari buruz? Kuxkuxero hutsa zen! Dena dela, ez zen asko arduratu, ez baitzen bueltatu gizon handi-handiarengana. Galderak amaitu ostean gizon handi-handiak esan zion amari ez zutela berriro etorri beharko, dena ongi zegoela, eta amak ezetz erantzun arren, bueltatu nahi zuela esan arren, gizonak lasai hartzeko esan zion, eta bere lagun baten izena aipatu zion, agian lagundu zezakeela esanez, baina, amarekin hitz egiteko zela, ez Agaterekin, eta txartel zuri bat eman zion. Agatek ez zuen ezer ulertu, ez zekien zergatik gustatzen zitzaion amari jende kuxkuxeroarengana joatea gauzak kontatzera, baina eskertu zuen gizon handi-handiarengana itzuli ez izana. Jatorra zen, baina bere tamainako jakin-mina zeukan: handi-handia.

Baina, gizon handi-handiak apur bat ernegatu ostean, Agatek emozioz betetako eguna izan zuen. Amarekin zihoan, eskutik helduta, uso batekin hitz egitera hurbildu zenean, baina usoak ihes egiten zion eta Agatek “Itxaron, mesedez! Uso anderea, gauza bat kontatu behar dizut!” oihukatzen zion bere atzetik korrika. Amak, bitartean, Agateri oihukatzen zion ez zedila urrundu, baina Agatek ez zeukan denborarik amaren garrasietarako; usoa gero eta urrunago zeukan eta ezin zuen bistaz galdu. Azkenean, usoa hegan joan zen, eta, amaren bila hasi zen begiradarekin, baina momentu horretan bertan txakur bat ikusi zuen itzalean etzanda, eta bera laztantzera joan zen. Txakurrari kirats izugarria zerion, baina Agateri ez zion ardura izan, leuna zelako, eta laztanak eskatzen zizkiolako.

Txakurraren ondoan gizon bat zegoen lo, txakurraren kirats bera zeukana. Gizonak kirolerako zapata zulatuak zeuzkan, zuriak izango zirenak, baina marroi zeuden jada. Hautsez betetako manta zahar piloa zeukan gainean, berak halako hiru okupatzen zuten manta guztiek, eta Agatek bere kolkorako pentsatu zuen, gaixorik egon behar zuela gizonak, bero izugarria egiten zuen-eta. Baina gizona bere lo-kuluxka epelean utzi eta txakurrarengana bueltatu zen.

—Badakizu zer? Nire auzokoak zure modu-moduko txakurra dauka. Behin hozka egin zidan eta negarrez hasi nintzen sekulako mina egin zidalako, eta ama etorri zen, baina txakurrari errua bota beharrean, errieta egin zidan esanez ez nintzela txakurrengana hainbeste hurbildu behar, baina gero auzokoak txokolatea eman zidan lasaitu nendin, eta mina kolpetik kendu zitzaidan. Auzokoa galtzerditan irten zen, eta zulo bat zeukan behatz lodian. Ni barrezka hasi nintzen, baina inork ez zuen ulertu zergatik. Galtzerdi hauetan ere zulo bat daukat, baina ez diot amatxori ezer esan, bestela bota egingo dizkidalako, eta asko gustatzen zaizkit, animalia-dendako arrainen kolore bera daukatelako. Begira, laranjak dira, haien modukoak. Ni ere arraina izango naiz nagusitan, edo saiatuko naiz, gutxienez. Behin esan zidan aitak itsasoan hainbeste denbora pasatuz gero ezkatak irtengo zitzaizkidala, beraz, hori egingo dut. Itsasora joango naiz egunen batean, eta arrain bihurtuko naiz.

—Ni ere gustura joango nintzateke itsasora oraintxe.

Agate harritu egin zen. Momentu batez, uste izan zuen txakurrak berak erantzun ziola, baina orduan jiratu egin zen, eta hortxe ikusi zuen azken hitzen ugazaba, gizon hozbera zaharra.

—Bakarrik zaude?

—Bai. Orain arte ez naiz konturatu, baina bai, amarekin nengoen, baina uso baten atzetik joan naiz gauza bat kontatu behar niolako eta gero txakurrarekin egin dut topo. Nola du izena?

—Max. Nahiko zaharra da, baina beti egon da nire ondoan. Baina zer egingo duzu bakarrik? Badakizu non egon daitekeen ama?

—Ba ez. Baina uste dut laguntzen badidazu jakingo dudala etxera heltzen.

—Badakizu kalearen izenik, edo hurbil dagoen dendarik edo zerbait?

—Hori ere ez dakit, baina zinematik hurbil dago, badakit zinematik etxera joaten.

—Baina ze zinema? Nik ez dakit zinema batera ere joaten, baina norbaiti galdetu diezaiokegu ea hurbilen dagoen zinema non dagoen, eta esango didazu ea hori den zure etxe ondokoa?

—Oso ondo!

Eta eskale zarpailak, txakur zaharrak eta ume xebreak lau pertsona ezberdinei galdetu behar izan zieten zinemari buruz, baina azkenak, zapatak eta ilea kolore berde berekoa zeukan neska batek, ezagutzen zuen bat handik hurbil, eta bidea azaldu zien nola heldu.

—Beno, neskak dioenez, ordu erdi inguru beharko dugu heltzeko, galtzen ez bagara, beraz, bitartean elkar ezagutzeko

denbora edukiko dugu. Ni Brais naiz, kostaldean jaio nintzen, herritxo txiki batean, arrantzale eta marinel artean. Hona etorri nintzen aspaldi, arrantzale izateaz gain zerbait egon behar zela sinetsita, baina ez zen erreza izan, eta kalean bizi naiz orain. Beti gordetzen dut poltsikoan, zehazki, bueltarako treneko txartel batek balio duena, egunen batean itzultzeko. Etorri nintzenetik gorde izan dut hori, baina inoiz ez dut adorerik izan bueltatzeko.

—Kostaldean jaio zinen? Niri ere itsasoa izugarri gustatzen zait, arrainak bertan bizi direlako, eta arrainak pila-pila bat gustatzen zaizkit. Baina ez dituzu gurasoak faltan botatzen? Nik ezin izaten dut aitatzok ipuin bat kontatu gabe ohera joan. Zuri norbaitek kontatzen dizu ipuinik? A, eta Agate naiz. Arrainak gustatzen zaizkit, batez ere.

—Gurasoak hilda daude aspaldi, baina itsasoa bai, nik itsasoa botatzen dut faltan, itsasominez bizi naiz. Gauero egiten dut harekin amets, baina beti eduki izan dut bueltatzeko beldurra -urrutira begiratzen zuen Braisek, saiatuz gero, aurpegian kresala sentitu ahalko balu bezala. Bat-batean, trantzetik irten eta poltsikotik zerbait atera zuen-. Begira, ahaztuta eduki dut, baina aurrekoan arrain hau egin nuen egurrez. Nik ere lokartzeko laguntza behar izaten dut, eta hau egiten dut. Hau, edo ipuinak kontatu. Hori da nagusitza: ipuinak gurasoek kontatzen zeure buruari kontatzera pasatzea.

—Orduan kontatuko didazu ipuin bat? Kontatu zure ipuina!

—Nire ipuina?

—Zure bizitzaren ipuina.

—A, beno, ongi da, nire ipuina kontatuko dizut -barre egiten zuen barrurantz, umearen xeblekeriaz jabetuta, lotsatuta, baina pozik, inork egundo ez baitzion bere ipuinik eskatu, eta hori nahi zuen ezer baino gehiago-. Bada, esan bezala, itsasoa utzi nuen hirira etortzeko. Herria benetan ederra zen. Troka batean eraikia, itsasoaren ondo-ondoan, dena zuria eta urdina, zeruko hodeien eta itsaso zabalaren koloreetakoa, oso biztanle gutxikoa. Aitona hil zenean hartu nuen alde egiteko erabakia. Arrainek bezala behar zuen itsasoan egon, itsasoaren maitale sutua zen, itsasotik bizi izandakoa betidanik, gure familian arrantzaleak ez direnek arrantza-sareak josten dituztelako, eta besteek ontzioletan lan egin. Baina, urdin infinitu hura hainbeste maitatuagatik ere, ez zen inoiz nahikoa izan berarentzat. Zazpi itsasoak ezagutzen zituzten bere begi txikiek, mundu osoko ur gaziak zituzten laztanduak bere esku latzek, itsasoak bustitako herrialde denak ezagutzen zituen, eta, hala ere, lurretik ez zen ondoko herrira baino askoz urrunago joan. Beraz, saminduta eta zerbait berriaren beharrez, hil zen egunean bertan egin nuen alde. Batuta neukan dirua eta beste ezer gutxi hartuta, lehenengo trenea hartu nuen hona, orain dela hogeitatu bat urte, eta hemen jarraitzen dut. Orain ere, sarri itzultzen naiz tren geltokira, eta begiratzen dut kostaldeko trenetik jaisten den jendea, nire moduko gaztetxo txoriburuen bila, eta horrela pasatzen ditut egunak, trenei begira, ateak zabaltzean bidaiariak olatuen zipriztinak ekarriko dituzten esperoan- berriro begiratu zuen oso urrunera, berak zioen moduan, itsasominez. Hain hurbil sentitzen zuen itsasoa, eskua luzatuta ukitu ahal izango zukeela.

Braisek jarraitu zuen denari buruz hitz egiten, eta Agatek, ohi bezala, milaka galdera egin zizkion arrainei eta

boligrafoei eta lanparei eta kaleko eskaleei eta zeruari eta zapatei eta bainuontzi urdin, handi, gaziari buruz.

—Joan gaitzeko tren geltokira? Nik ere itsaso-usaina sumatu nahi dut ateen beste aldetik kostaldeko trena heltzean.

—Baina, Agate, etxera joan behar dugu, laster ilundu egingo da. Egunen batean, berriz elkartzen bagara, batera itxarongo diogu kostaldeko trenari, eta usainduko dugu itsasoa bertatik.

—Ongi da. Orduan, bitartean, beste ipuin bat!

—Gehiago?—zioen barrez— ez, orain zuk kontatuko dizkidazu.

—Baina nik ez dakit ipuinik...

—Orduan zuri buruz kontatu diezadazu zerbait. Zer izan nahi duzu nagusia zarenean?

—Ba nik, arraina, zure aitona bezala, munduko itsaso guztiak bisitatzeko..

—Kontuz, bada, itsasoan bizitzearekin. Itsasoak jendea maitemindu egiten du, baina gaixotzera arte, batzuetan. Itsasoa gauza miresgarria da, urteetan zehar, mundu guztiko jendea maitemintzeko gai izan dena. Ez du ardura zenbat bider egon zaren itsasoan, hunkitu egingo zara putzu hori berriro ikustean. Baina gauza miresgarri gehienek badute beren madarikazioa atzean.

Agatek aho bete hartz begiratzan zion gizon jakintsu hari, itsasoari buruz maitekiro bezain beldurri hitz egiten zuen hari. Zer egingo zion itsasoak hainbeste mintzeko?

—Zuk zer izan nahi zenuen txikitan?

—Denetarik. Inoiz ez nintzen erabakitzekeo kapaz izan. Baina zure txanda da hitz egiteko! Ea, badakit, zergatik gustatzen zaizkizu arrainak hainbeste?

—Ez dakit... beste lagun batzuk edukitzea bezalakoa da. Itxaron egiten dizute zer bazkaldu duzun kontatzen amaitu arte, makarroiak zer diren jakin ez arren, eta entzun egiten dute amaren haserrealdiei buruz hitz egiten badiezu. Askotan amatxok ez dit hori egiten, ez dit itxaroten eta ez dit entzuten arrainei buruz berbetan hasten banaiz —begirada tristea bota zuen lurrerantz, baina atoa begiratu zion Braisi irribarre gozoz—. Zuk bai, zuk entzuten duzu, Brais —Agateren begirada barruraino sartzen da hilkorren bihotzetan, batzuetan amarenean ere, eta Brais konturatu zen begitxo berde horien atzean zegoela aspaldian izan zuen lagun bakarra, entzuten zekien bakarra.

—Beldur naiz. Gurasoak ikusteko gogo handia daukat, baina seguru nago oso larrituta egongo direla, eta orain errieta egingo didate. Amak esango dit ezin dudala topatzen dudan lehenengo animaliaeren atzetik joan, eta adi egon behar dudala kalean eta bere eskutik ez askatu. Eta aitak ez du jakingo zer esan, buruarekin baietz esango du serio, amak pentsa dezan bera bezain sututa dagoela —lurrera begira zegoen ordura arte, aitaren aurpegi serioan pentsatzen, baina Braisi begiratu zion zuzen-zuzen—. Ez didazu esan zerk ematen dizun beldurra.

—Inoiz ez dut pentsatu, egia esan.

Baina erantzuna Agatek oztopatu zuen, lorarik gabeko lorategi bati begira geratu zenean. Braisek ulertu zuen: heldu

ziren. Atea jo zuen Braisek, hunkituta, eta atea zabaltzean Agateren gurasoak geratu zitzaizkion parean, ama erdi negarrez, aita aurpegi larriarekin, baina umea poz-pozik, ezer gertatu izan ez balitz bezala, bertan ikustean, irribarre handi banak argitu zituen haien aurpegiak. Ama segituan hasi zen Agateri errieta egiten, berriro alde ez egiteko, guztiz arduratuta zegoela familia osoa, kaleko pertsona guztiei galdetu ziela ea ikusi zuten... aitak, aldiz, oraindik shock egoeran, gizon zarpail eta usaintsu hori ikustearen harridura disimulatu nahian, mesedez, gizonari etxera sartzeko esan zion, kafe bat hartzeko gutxienez. Baina Braisek, lasai-lasai, horrela esan zion: “Ez, mila esker. Tren geltokira joan behar dut, itsasoa zain daukat.” Eta, Agateri begia kliskatuaz bat, alde egin zuen betirako. Baina Agatek oraindik gordetzen du bere egurrezko arraina, eta berarekin hitz egiten du maiz, itsasoari eta treni buruz, batez ere.

Munstroei ipuinak

Mar Quijano Cid

Arratia BHI

Igorre

Badakit mina dela noblezia bakarra,
Lurrek eta infernuek ez dutena lortzen;
Bilbatuko dut nire koroa zerutarra, Denborak eta
munduak menderatu ondoren.

Charles Baudelaire

Ostegun batean heldu zen gutuna.

Bertan ostiral arratsaldean institutuan gelditzeko “gonbidapena” zegoen, klaseak amaitu ondoren, saio berezi bat emateko. Gonbidapena baino gehiago ohar bat zen, zigor baten oharra.

Zer egin nuen zigortua izateko? Egia esan, nik ere ez dakit. Hori justua al da? Seguru ezetz, baina zuzendaritzatik tutore den filosofiako irakasleak hartu duen erabakia dela esan zidaten. Ostiral osoa ibili naiz gora eta behera, tutorearen bila, azalpen baten bila, baina lortu dudak bakarria zera da: “arratsaldean zurekin egoteko deitzen badizute, zure gurasoekin batera hitz egiteko izango da”.

Horrek ez nau batere lasaitzen. Eta hemen nago, gelaren atearan aurrean, atea jotzeko edo ihes egiteko zalantzan. Azkenean atea jo dut.

—Aurrera!

Atea zabaldu bezain laster, lau pertsona agertu dira, ezagunak eta ezezagunak. Maila desberdinekoak, baina irakaslerik ez.

—Eta beste bat heldu da. Zenbat jende gehiago etorriko da, ba? —nahiko haserre kexatzen da neska bat. Bigarren lerroan eserita eta besoak gurutzaturik haserre aurpegia jartzen du, haren kopeta ilunduz hasten da atzamarrekin mahaiaren kontra erritmo bat markatzen, oso arina eta sendoa.

—Hobe duzu ezartzea. Ez dakigu zenbat denbora emango dugun “zigor ” hau betetzen. —dio beste neskak. Gelaren azkenengo mahai lerroetara noa, eserita kanpoaldera begiratzen dagoen mutilaren aldera. Bere eskuetan boligrafo urdin bat mugitzen du atzamarren artean.

Mutil hau nire gelakoa da, Ekaitz. Arazo-sortzaile aparta, baina bihotz onekoa. Ezer esan gabe bere ondoan esertzen naiz.

—Agara, kaixo! —agurtzen nau niri begira. Buru mugimendu sinple batekin bueltatzen diot agurra eta aulki bati buelta emanaz haien aurrean esertzen naiz.

—Aizu, ba al dakizue zer gertatzen den hemen? —galdetzen du hasierako neskak.

Ezetz esanez aulkiari buelta ematen diot, aurrez aurre gelditu naizelarik.

—Zein mailatakoak zarete? —galdetzen diot jertse zuridun neskari. Inoiz ikusi dut, baina ez dakit non.

—Zuek baino urte bat gehiago. Ni Ederne naiz, eta hau Enara. —aurkezten da neska.

Bigarren neskak mahai gainean jartzen du burua gu agurtu ondoren. Bat batean atea zabaltzen da, beste pertsona bat ikusteko.

—Zu? —oihukatzen dio Ekaitzek sartu berria den mutil bati.— Zergatik zaude hemen? —galdera botatzen du altxatzen den bitartean. Ez da maitasun asko arnasten.

—Zigortuta. Eta zu? —galdetzen du besoak gurutzatzen dituen bitartean, era harroputzean, nire ustez.

—Hara, begiratu non amaitu duen mutil onak. Zer egin duzu, ba? Komuneko paperari su eman? Irakasle bati esan? Edo zure lehen pira? —doinu isekariz beteta dauden dagak jaurtitzen ditu.

—Ez du merezi zurekin denbora galtzea. —eta ezer gehiagorik esan gabe bigarren lerroko aulki batean esertzen da, Ekaitz eta haren artean dagoen pasilloari esker banatuta.

Ezer esan gabe, biak bazterten dute begirada.

—Eta bera? —galdetzen dut gela amaieran dagoen neska bat seinalatuz. Neska mugikorrean etengabe zerbait tekleatzen ari da eta noizbehinka argazki bat edo bi ateratzen.

—Ez dakit, azken mailako bat agian. Nahiko nagusia dirudi. —jarraitzen du begirada pare bat eman ostean.

—Eta denbora guztia mugikorrari itsatsita. —kritikatzen du Enarak eta Eiderrek amaitzen du zurrumurru saioa.

—Entzun dut zuzendaritzara hainbat bider sartzen ikusi dutela, istilu-sortzaile aparta. Mrs Troublemaker.

Denok isiltzen gara irakasleari itxaroten jarraitzeko. Gutxienez ez dira gure gurasoak etorriko. Zarata entzungaitz batek mozten du isiltasuna, giltza baten soinua atea ixterakoan eta pertsiana elektrikoen motorra martxan jaisterakoan. Tximista bezain azkar hurbiltzen gara atera giltzapean itxita dagoela ohartzeko. Leioha zabalik dago, Enarak mantentzen du pertsiana bere eskuekin.

—Apurtuko duzu! —bultzatzen du Ekaitzek.

Pertsiana zizta batean ixten da eta Enara lurretik altxatzen da mutilaren aurka joateko.

—Ez al dakizu zer garestiak diren? Eta gero espedienteen grabatuta geratzen da, betiko. Gero jasan bizitza guztirako “chica mala”ren papera.

—Eta orain hemen harrapatuta gaude. —erantzuten du.

—Eta zer nahi zenuen? Leihotik salto egitea?

—Lehenengo solairuan gaude! Eta orain zer? Asteburu osoa hemen emango dugu giltzapetuta? Garbitzaileak orain dela hamar minutu amaitu dute lana, ez da inor gelditzen institutu osoan!

Edernek esku bat jartzen du bere sorbaldan lasaitzeko asmoarekin.

—Lasaitu gaitzen. Irteteko modu bat topako dugu — mutilari begiratzen dio—. Zein da zure izena?

—Ekaitz —ihardesten du— Zer da hori? —irakaslearen mahai gainera seinalatzen du— Han paper bat dago.

Hurbiltzen naiz paperari nire eskuetan eutsiz. Letra argi eta etzanaz idatzita dago.

Ongietorri saio berezi honetara. Aldez aurretik barkamena eskatu nahi dizuet iruzur doilor honen bidez zuek elkartzeagatik, baina ez zegoen beste modurik. Ariketa oso erraza da. Apaletan dauden ipuinak baino ez dituzue irakurri behar eta pertsonaia identifikatu. Hori da dena. Zorte on guztioi.

—Zer demontre da hau? Ni banoa hemendik. —altxatzen da Argi.

Papera gehiago zabaltzen dut.

—Itxaron! —gelditzen ditut— *“Ariketa amaitutakoan askeak izango zarete. Asteburu luze bat dugu aurretik.”*

Argi berriro esertzen da, eskuekin aurpegia estaltzen duen bitartean.

—Jenial. Ez dugu aukerarik, ezta? —buruarekin ezezten dut eta jarraian hasten da bere mahaian paperaren bila— *“Kristalezko ezkatat”* —irakurtzen du eta papera zabaldu— Hau guztia? Luzeegia da! —kexatzen da eta

Ekaitzek kentzen dio papera bere mahaian zegoenarekin ordezkatzuz— “*Urrezko bihotz hotza*”? —Hau oraindik luzeagoa da!

Ekaitzek ez dio erantzuten, bere ipuina aztertzen duen bitartean. Nik aulki bat eramaten diot. Denok elkartzen gara gelaren aurrealdean, mahai baten inguruan, ipuin bat eskuetan.

—Nor hasiko da?

—Irakurri izenburuak eta interesanteena dena. —proposatzen dut.

—Uste duzu hori dela egokiena gure bizitzak irakurtzeko? —dio oraindik hitz egin ez duen neska bakarrak, mugikorra alde batera utzita.

—Eta nor zara zu, jakin ahal bada? —galdetzen dio Ekaitzek argi eta garbi.

—Amaia, azkenengo mailakoa.

—Eta zelan proposatzen duzu irakurtzea? —galdetzen dio orain Enarak.

Ez du erantzuten eta isiltasun deseroso batek inguratzen gaitu. Ekaitzek eskua altxatzen du.

—Ni has naiteke eta gero erlojuaren zentzua jarraituz bakoitzak berea irakurri. —inork ez du ezer esaten, bere proposamena onartuz— Orduan hasiko naiz: *Bazen behin...*

~ Kristalezko ezkatatak ~

Bazen behin, ezkata distiratsu eta koloretsuak zituen munstroa. Bere begi xebreak eta estaltzen zituen kolore argiak edozein lore baino erakargarriagoak ziren, baina, nahiz eta haren naturaz gaindiko edertasunari esker ezaguna izan, guztiek zekiten komenigarria zela ez hurbiltzea. Egunak joan ahala, izaki honek inguruko guztiak uxatzen zituen, bere pozoi hilgarria erabiliz, eta horrela, bere nahi gorena lortzen: bakarrik egotea.

Izaki honek lasaitasuna eta isiltasuna maite zituen. Ez zen berekoia, inork ez bazion ezer eskatzen; ez zen zakarra edo ezatsegina, inork ez bazion barbarik egiten; ez zuen deigarri gertatu nahi, besteen zurrumurruek esaten zuten bezala. Lasaitasuna baino ez zuen nahi, eta horretarako bakardadea irtenbide bakarra zela sartu zuen buruan.

Baina bazen txori herabe bat, sagar baten tamainakoa, ausartegia edo inozo hutsa hari alderatzeko. Hegaztiak ez zuen besteen arreta deitzen, ohikoa zen. Ez zuen kolore deigarririk, ezta ahots hipnotizatzaile ere, baina haren asmoa garbia zen. Izaki ezkatatsuaren ondoan igarotzen zituen egunak, besteak nahi ez bazuen ere.

Eta horrela, gauarekin batera, munstroa txoriarekin fidatzen hasi zen eta bere ezkatetara hurbiltzen utzi zion, bere haragi biguna eta babesgabea agerian utzita. Ezkatatak kolore urdin, berde eta turkesak zeuden gunera hurbildu zen txoria eta kontu handiarekin han lurreratu zen. Haizeak esaldi etsi bat eta erregute bat ekarri zuen.

—Zergatik jarri zenituen hormak zure inguruan? Zergatik mina, beldurra, poza eta momentuak bakarrik bizi partekatu ordez?—galdetu zion txoriak izarrez estalita.

—Batzuetan ez ditugu hormak sortzen jendea sartzen ez uzteko, **horma hauek botatzeko saiakera egingo duen pertsona aurkitzeko** baizik. Horrela dakigu nor mantendu behar dugun gure bizitzan eta nor ez.

Eta horrela, bihotza zabalduz doa, mundu berriak zeharkatuz, baina inoiz ez bakarrik. Itsaso ilun eta sakonean hondoratzen ari den gorputza bezala, jeloskor azken aire ahokada gordetzen duen bitartean, itxaropena galtzeko zorian dagoena eta argi izpi epel baten lastana sentitzen duenean beso eroso batzuen besarkadarekin batera iluntasunetik atera baino lehen. Lastan leun horren morroi bihurtuz. Bakardadea atzean utziz.

*Baina sentsazio berriak kateak sortzen dituzte. Izakia berandu jabetu zen bere itzala txoriarenera lotzen zituzten berun eta kuskulazko kateak zintzilizka zituela eta kate horiek **apurtuak izateko sendoegiak zirela.***

—Amaiera gogorra... —mozten dut isiltasuna.

Hala ere, inork ez du txintik ere esaten. Edernek Enararen eskua sakatzen du, hau animatuz edo beharrezkoak diren indarrak emanez.

—Gure istorioa da. —jakinarazten digu Edernek, urduritasunak Enararen aurpegia utzi gabe. Bakoitzaren burmuina bere usteak sortzen. Nor da munstroa? Eta txoria? Bi nesken izaerak esaten duen arabera, Ederne txori alaia da

eta Enara izaki bakartia. Baina nahikoa al da hori? Ni monstria, bera txoria.

Isiltasuna berriz ezartzen da gure artean.

—Irakur dezagun beste bat! —animatzen gaitu.

~ Amets hiltzailea ~

Ametsak aurrera jarraitzen laguntzen gaituen fantasia da, gure zero pertsonala eta gure infernu bakartia; lau haizetara oihukatzen ditugun istorioak eta itzaletan gordetzen ditugun kondairak; minaz ahazten laguntzen gaituen anestesia, baina munduaz isolatzen gaituen droga.

Eta kondairak dio, ametsaren izakia leku ilun eta ezezagunetan bizi dela, amets gaiztoz elikatzen dela, umeengandik gaueko beldurra uxatzen eta logela urrezko hauts finez betetzen duela, elurretako bolaren elurrak hegan egiten duen moduan. Ametsak bolaren kanpoaldean geratzen dira, amets goxoak barruan. Eta horrela, munduko ume guztiak izaki honen atzaparretan jausten dira, haren esku epel eta leunetan. Amesgaiztorik gabe, baina ametsik gabeko loetan, iluntasunaren besarkada epel eta lasaiaren sentipena gorputzetik zehar, letrarik gabeko lo-kanta baten sorginkeriararen menpe.

*Ametsez sortutako hariak amesgaiztoak erakarri, harrapatu eta xurgatzen dituzte, kolore bizidun lore-haragijaleek ehizatzen duten moduan. Eta horrela mantentzen ditu umeen loa amets gabe, **amets gaiztoak ere ametsak baitira.***

—Laburra, baina gogorra. —Edernek papera astintzen du denon aurrean— Ala, ba! Esan!

Oraingoan, dudarik gabe onartzen du Argik berea dela, burua jaitsi gabe.

—Nire txanda! —oihukatzen du Enarak.

Bere papera poliki-poliki zabaltzen du, momentuari tentsioa erantsiz, paper txiki hartan Atlantidaren kokapena idatzita balego bezala. Paper horrek munduko arazo guztiak konpontzeko erantzuna gordetzen duela dirudi. Azkenean ezpainak askatzen ditu.

~ Deabru baten oroipena ~

Beharrezkoa al da aurkezpenik egitea? Denok ditugu deabruak, guk hartutako erabakiak eta horien ondorioak sortzen diguten zama kateak bezalakoak dira. Gure inguruan, iluntasun sakon irenslera hurbiltzen gaituzten kateak.

Eta horrela batzen dira arima guztiak, gau amaiezinean hondoratuta dagoen parke batean, non ilargia lagun bakarra duten. Eta zabu gabeko parke honetan, non kateak zenbatu ahal izateko zailtasuna aurkezten den, bizi dira arimak, Iragan izeneko parkean. Hobe da ezagutzen dugun iluntasunean bizitzea argitasun mingarrian baino, ezta?

Baina, dudarik gabe, itsuenak haien burua barkatu eta akatsak gainditu dituztenak dira. Irteeran lurrari lotuta, jesarrita lurrean, kateen dantza iraunkorraren esklabo.

Zergatik jarraitzen dute parke horretan, jadanik haien iragana garaitu eta ikasi beharrekoa badakite?

Beste kate mota batzuk mantentzen dituzte han. Ez al diegu gehiegizko inportantzia ematen besteen iritziei? Guraso, lagun, ezagun, ezezagun. Buruketa bat egiten dugunean bezala, akats sinpleenetan jausten gara, soinu irainduz sortutako kateen menpean amaituz.

Lurrean eserita zegoelarik, burua makurtuta eta esku hilak izterren gainean, ahots bat entzun zuen, ez urrutian. Burua astiro altxatuz begiak zabaldu zituen eta kateen pisu guztia leporatuz, altxatu egin zen, ahots haren bila, mina guztiz ahaztuta laguntza eskatzen zuen pertsona horren ardura besterik ez du.

Bat-batean, soinua eten egin zen. Haren aurrean, beste arima bat zegoen, eta bi arimen artean hari zuria. Bestearen aurpegia altxatuz, distira moreko arimaren benetako arima ikusi zuen lokatz beltzez beteta, eskaintzen zion laguntza oztopatuz.

Eskuak dardarka zituela, arima morearen masailetan jarri zituen, laztan leunekin lupetza kenduz eta, berehala, bi arimaren konexioa sentituz. Biek sufritu zituzten beren akatsen ondorioak, biek gainditu eta ikasi zuten akatsetik, baina biak bizi ziren besteen barkamenaren menpe.

*Ezagutzen ditugun pertsonak gogorrenak izan daitezke, eta askotan behar dugun laguntza ezezagunengan topa dezakegu eta paper bigunezko kateak errauts bihurtu. Arima biak irteerarantz abiatu ziren, haien etorkizuna bizitzeko prest, nahiz eta **amets honetatik itzartu ondoren dena ahaztu.***

—Zaila da iragana atzean uztea... —Amaiak papera
ixten du irakurtzen amaitzean.

Inork ez du ezer esaten. —Nirea da.

—Eta nirea, hurrengoa. —onartzen du Ekaitzek eta
Argik haren papera zabaltzen du.

~ Urrezko bihotz hotza ~

*Urrea, distiratsua eta balio handiko materiala.
Ezkontzetarako material sakratua, erregetzaren eta jainkoen
kolorea, boterearen isla eta gizonen diru-gosearen janari
ahogozagarria.*

*Urrezko bihotza, gozoa eta jainkotiarra, denoi laguntzeko
prest eta denon laguna dena. Batzuetan, bizitzak ugertutako
bihotza, besteetan interesak marraztutako bihotza. Eta zer
gertatzen da pertsona batek bihotz horren benetako izaera
topatzen duenean?*

*Inork ez du sinesten. Zergatik sinetsi ahots ahul baten
zurrumurruak urrearen distira hotzaren eraginez estaliak
direnean, hitzak ikusiezinak bihurtzen begi itsuen aurrean.
Ez al da denok maite duten mozorroa etsairik hoberena?
Zelan borrokatu istorioko onaren aurka, norbera istorioko
maltzurra bihurtu gabe?*

*Eta kristalezko eta harri gogorrezko munduan bizi diren
izakiak haien bihotza agerian daramaten bitartean bizi dira
urrezko bihotzen eraginpean. Kristalezko bihotzak, garbiak
baina ahulak, eta urrezko bihotzak, gogorrak baina hotzak.*

Urrezko bihotzak kutsatzen joan ziren, haien urrea galduz, arraza guztia hil arte. Ahulenek, beren bihotzak isuritako odol distiratsuz margotuz, armadura sendoa eraiki zuten, itxurazko urrezko bihotzak jantzita izanda eta jarrera erasotzaile batekin batera bizitza jarraituz.

Urrez egindako mozorro perfektua barne-ahultasuna estaltzen duen heinean, babestuta biziko diren pentsaeran itota, eta apurtzeko beldurrak kontrolatuta bizi ziren. Haien beldurrei aurre egiteari uko eginez, apurtzeko arriskua saihestuz. Munduari urrezko mozorroa erakutsiz eta bihotz hotza eskainiz, traizioz eta egoismoz kutsatutako jarrerak.

Bitartean, eguzki izpien erregetzaren garaian esku batek orratz zorrotz eta mingarrien artean bidea zabaldu zuen, izpiak haren urre-koloreko azalean talka egiten zuten bitartean. Bere hilobitik altxatu zen, eragindako mina barkatuz, baina inoiz ez ahaztuz. Bizitzari irribarre bat eskaini zion bere bizitza mundu berrian hasi ahal izateko; urrea bezain distiratsua zen irribarrea.

Baina urrea material hotza eta gogorra da.

—Gai gogorra, dudarik gabe. —komentatzen du Argik.

Baina isiltasuna nagusitzen da berriz.

—Benetan egin beharko dugu berriro? Nagusiegiak zarete kontatzen ikasten hasteko. Barikua da eta, nik behintzat, etxera joateko kristolango gogoia dut.

Nire eskuak dardarka hasten dira. Nire historia da. Urrezko bihotz minduek gordetzen dute benetako ardura merezi dutenentzako, baina eskuzabaltasunaren mozorroa

mantentzen dute besteen aurrean. Urduri, eskua altxatzen dut.

Inork ez du ezer esaten, eta hurrengo istorioa nire ahotsaz hasten da.

~ Isiltzen dugunaren bizilagunak ~

Gogoratzen dudan azkena belar gainean etzanda egotea da, zeruari begira, ukiezinak diren izarrak ukitu nahian. Eta orduan, nire arima materialazko kartzelatik ihes egiten duen momentuan gogoratzen dut dena...

*Zelan bizi gara besteengandik babesteko **kristalezko ezkat**ak sortzen, hauek apurtzeko gai den pertsona horren zain gauden bitartean. **Deabru baten oroipenak** are gehiago estutzen dute gure bihotza, amets horretatik itzartu ondoren dena ahazteko desioa piztuz. Gure **urrezko bihotz hotzak** babesten gaitu etsaietatik, baina kontuan izan behar dugu ez garela gu bakarrik material gogor eta hotzezko bihotzen jabeak. **Amets hiltzailearen** garaia heltzen denean, ez baztertu, gogoratu amesgaiztoak ere ametsak direla, baina ahal ditugun minutuak zerutik zehar igaroko ditugu. **Isiltzen dugunaren bizilagunak** garelako eta gure artean elkar zaintzen dugulako. Denok gordetzen ditugu sekretuak, denok dakigu indartsuarena egiten. Denok berdinak gara, ezta?*

Berriz astelehena, egun berria asteburu osoa ostiraleko gertaerari bueltak ematen ondoren. Gelara sartzen naiz nire betiko tokian esertzeko eta koadernoak ateratzen ditut, orri zuri batekin eta berarekin batera hainbat izaki agertzen dira.

Ezkata urdineko neska gaztea landa batean hainbat sugerekin eserita dagoena; txori txiki eta geldiezina, bien itzalak kate batez lotuta daude eta lore sortak haien inguruan; zeruan amaitzen diren sokek mantentzen dituzten bi panpina apurtuak, soka batzuk apurtuta daude. Hegazti itxurako argi energia, bata morea eta bestea urdina; beltzez marraztutako neska, haren urrezko bihotzak paparra argitzen du ezkerreko eskua maskara bat eusten duen bitartean; beste itzal bat, besoak zabalik dituena, jausten ari den gorputza hartzeko; eta amaitzeko, bola zuri bat, panpina haustu batetik ihes egiten duena, askatasunaren bila.

—Egunon guztiei! —burua altxatzen dut, nire aurrean dagoen pertsona harriduraz ikusiz. Ni Institutuko psikologo eta orientatzaile berria naiz. Behar duzuenarako, hor naukazue, zuen kezkei amaiera jartzen laguntzeko prest. Ni Amaia naiz.

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsuak

Sugea eta zu

Maddi Agirre Epelde
Armentia Ikastola
Gasteiz

Beste batez argitu du egunak. Goizeroko errutina monotonoari ekin diot berriz ere: gosaldu, harrikoa egin, aurpegia urez busti, hortzak garbitu. Gosaldu, harrikoa egin, aurpegia urez busti, hortzak garbitu... Beti da berdina.

Begiak estu itxi, arnasa sakon hartu eta zure logelako atera hurbildu naiz. Dardarati pausatu dut eskua heldulekuan, gutxinaka-gutxinaka ateari bultza eginez. Betiko atmosfera itxiarekin egin dut topo zure logelan, eta leihoa irekitzera joan naiz berehala. Zu ohean etzanda zaude, beti lez, begiak sabaian iltzaturik. Albora hurbildu eta goxotasunez begiratu dizut. Oroitu dut zein politikak ziren zure zilar koloreko begiak minak eta esperantza ezak bertan zegoen edertasuna lapurtu aurretik. Zure azal fin eta zuriak armiarma sareak gogorarazi dizkit, hain xehatu eta delikatuak.

Irribarre batez agurtu zaitut, baina ez dut erantzunik jaso. Edozer emango nuke zure irribarre ederra berriz ikustearren, baina bizitzaren krudeltasunak ez ditu nire nahiak asebate nahi.

Gelatik atera, etxeko giltzak hartu eta kalera irten naiz, haizeak nire pentsamenduak urrunera bidal ditzan. Astelehen goiza da, eta eskolara hurbiltzen ikusten ditut haurrak, beren

gurasoen eskutik heldurik, zoriontsu. Jende pilaren artean ikusi dut Manex. Oroitzen? Sei urte zenituela hain gustuko zenuen mutila. Asko aldatu da lau urte hauetan, baina inguruko guztiak alaitzen jarraitzen duela dirudi. Eskolara eramaten zintudan egunak oroitu ditut: ni beti ibiltzen nintzen urduri eta presaka, etxetik puntual ateratzeko gai ez zinela. Zu, berriz, beti pozik, zeruko txorien hegaldiari begira.

Okindegi aldera hurbildu naiz. *Epa, Mari! Betiko bagueta?* Buruarekin baiezkoa eman eta dendaren atzealdera sartu da. Salmahaiko gozoei begiratu diet, eta hain gustuko zenituen Ferrero Rocher bonboiekin egin dute topo nire begiek. Bonboi horiek erosteko alama ematen jarduten zenuen, eta nik amore eman ohi nuen beti, zure aurpegi esanguratsuari nola aurre egin jakin ezinik. Bonboi kaxa bat emateko esan diot okinari, eta ordaindu ondoren, dendatik atera naiz, bagueta eta Ferrero Rocherren kaxa eskuan ditudalarik.

Nora joan jakin gabe hasi naiz kaletik ibiltzen, eta konturatu gabe, herriko parkera eramanez naute hanke, nire gorputzeko guneren batean ezkutatuta dagoen indar ikusezin batek gidatu izan balitu bezala. Obretan ari dira, baina berehala ikusi dut txikiagoa zinenean hain gustuko zenuen zabua. Zenbat ordu igarotzen zenituen hor, balantzaka, denboraren joana guztiz galdurik? Ni zure ondoan egoten nintzen beti, bultzatzen hasieran, zure kabuz zein ondo moldatzen zinen begira ondoren.

Zulatzeko makinaren hotsak nire pentsamenduak eten ditu, eta parketik urruntzeko beharra sentitu dut. Eliza aldera hurbildu eta zure asperdura aurpegia etorri zait burura, izeba Antoniren ezkontzan apaizaren sermoia entzun behar izan

genuenekoa. Ondo dakizu ni ez naizela inoiz fededuna izan, baina elizara sartu, atzealdean eseri eta zuregatik errezatzen hasi naiz. Badakit baina ez didala zeruko inork entzungo, ez baitago esperantza galdua duten pertsonei laguntzerik.

Arkupera irten eta liburutegia begiztatu dut urrunean, alegiazko munduekin liluraturik fantasiazko istorioak irakurtzen horrenbeste denbora igarotzen zenuen gunea. Bertara hurbiltzea erabaki dut. Haurrentzako liburuen artean galduta ibili ostean, *Ratapon urtxintxa* ipuina aurkitu dut. Gogora etorri zaizkit zure ondoan etzan eta Rataponen istorioa goxotasun amaiezinez kontatzen nizuneko neguko gau hotzak. Kontakizun sinplea da: Ratapon bere amari jaramonik egin gabe etxetik ateratzen da, eta suge batek harrapatzen du. Sugeak urtxintxa ito behar duen unean bertan, Rataponen ama agertu eta dena konpontzen du. Hala bazan eta ez bazan sar dadila ez dakit nongo plazan.

Ipuina bukatu ostean musu ematen zenidan, pozik Rataponek ez zuelako bizia galdu. Lotarako ordua zela esaten nizun nik ondoren, eta eskutik helduta eramaten zintudan ohera.

Liburutegitik atera eta etxerako bidea hartu dut. Zure logelara sartu eta bertan ikusi zaitut, kanpoan egon naizen bi orduak igaro ez balira bezala, begiak sabaian iltzaturik. Ordulariari begiratu eta bazkaltzeko ordua dela jabetu naiz. Sukaldera hurbildu eta makarroiak prestatzen hasi naiz, zure jakirik gustukoena. Jan bitartean zure egoerari buruzko hausnarketa egiten dihardut. Zergatik egokitu zaizu zuri zorigaitz hau jasatea? Ez dago haur baten bizia gutxinaka-gutxinaka nola itzaltzen den ikustea baino okerragorik, prozesu letal hori gelditzeko inork ezin duela ezer egin jakinda, gainera. Sufrimendu komunikaezina.

Bazkalorduko une mingarriak bere baitan hartu nau, eta atera ezinik egon naiz mahaiaren ertzean okindegian erositako Ferrero Rocher bonboi kaxa ikusi arte. Nire kontzientzia goxatzeko ona izango dela pentsatu eta bat hartzea erabaki dut. Ahaztua nuen jada Ferreroen zapore bikaina, pertsona penatuenaren bihotza alaitzeko modukoa. *Alabaren bihotza alaitzeko modukoa*, entzun dut nire buruko guneren batean.

Ez dakit zergatik, baina Ferreroaren zaporeak edo, Ratapon urtxintxaren ipuina gogorarazi dit, eta indar boteretsu bat nabaritu dut bihotzetik hasi eta gorputz guztira zabaltzen. Azaleko ilea tente jarri zait, eta dardaraka hasi dira besoak, jaberik gabeko zaldi urdurien antzera. Lepotik gora joaten nabaritu dut indarra, eta buruan zabaltzen hasi da, bertako txokorik ezkutuenak miatzen. Bat-batean irudi bat etorri zait gogora: Ratapon bere amaren ondoan etzanda, honek sugea akabatu eta semea salbatu ondoren. Biek zoriontsu dirudite.

Irudiak nire kontzientziazatik ihes egin orduko, zerbaitek eztanda egin du nire barrenean. Gorputz osoan zehar nabaritzen dut indarra. Zerbait egiteko beharra sentitu dut, egoera honekin amaitzeko beharra, zu estutzen zaituen sugarekin akabatzeko beharra, Rataponen amak egin zuen bezala.

Makarroiak bukatu gabe utzi eta zure gelara abiatu naiz korrika batean, begiak ur gezazko itsasoetan murgilduta ditudalarik. Hainbeste sufriarazi dizun sugea akabatu nahi dut behingoan, min guztia kendu behar dizut, bakea eman.

Inguratzen zaituzten makinei begirada bat bota besterik ez dut egin behar izan botoi madarikatua aurkitzeko,

hainbeste gauetan lo hartu ezinik eduki nauena, nire amesgaiztorik okerrenak eragin dituena.

Orain, ordea, ez dit beldurrik ematen. Zuri azkeneko begirada zuzendu eta arima botoia sakatzeko eskatuz oihuka duzula nabaritu dut. Ratapon irudikatu dut, sugearen ezkatetan harrapaturik, ito zorian, eta azkar batean sakatu dut botoia.

Une batez, denbora gelditu dela antzeman dut. Ez zara zure lekutik mugitu, begiak sabaian iltzatuta jarraitzen duzu, baina badakit jada ez zaudela nire ondoan, badakit aske zarela... Orduan ikusi dut leihoan pausaturik zegoen txoria. Hegoak zabaldu eta hegan eginez urrundu da, batek daki norantz. Bakea da orain sentitzen dudana bakarra.

Itotzen zintuen sugea urruntzen nabaritu dut. Ataxiak ez dizu min gehiago emango.

00:00 (hamabiak)

Orreaga Zabaleta Ikatzeta
Begoñazpi Ikastola
Bilbo

Nora joanik ez zenuela esan zenidan. Zure familiaren bizkarra ikusten zenuen soilik haiekin hitz egiterakoan. Zure bikotekidea beso irritsu batzuek hartu zuten, bereganatuz. Nora joanik ez zenuen. Orduan, nire adiskidetasunak, bihotzak eta etxeak hartu zintuen. Nahi zenuen denboran gelditu ahal zinen, lehenago alde egin ez bazenuen nahi. Hala ere, zalantza nabaritu ahal nuen zure begietan, traba izango zinela pentsatuz. Abegia inoiz ez zela agortuko erantzun nizun.

Egunak igaroz, mundua maite zenuela ikusten nuen. Irribarre bat ahoan zenuela heltzen zinen pisuko egongelara eta besaulki morearen gainean eseriz, zure egunaz hitz egiten zenidan. Ez nuen irribarre baino egiten, horrek poza ematen zidalako, zu pozik ikusteak. Kanpoko janaria ekartzen zenuen batzuetan. Astelehenetan, oilasko usainak menperatzen zuen pisua, astea ongi hasi behar zela esaten zenuelako. Ezin nuen zurekin eztabaidatu horretaz.

Nik marraztu egiten nuen. Loreen, hodeien, aurpegien eta figuren marrazkiek nire koadernoan gainezkatzen zuten. Ez zegoen izkina bakar bat kolorerik ez zuena. Eta, batzuetan, nire hatzek aurpegi ezagun bat marraztera eramaten zuten arkatza. Asmatu ezazu nor zen. Ausarta sentitzen nintzen

egun batean, marrazki bat oparitu nizun. Eskerrik asko, lagun itzela zara. Nolako mina nire bihotzean.

Dena ongi zihoan, bakoitzak bere bizitza zeraman baina espazio komun bat genuen elkarrekin egoteko. Dena aldatu zen A gure etxera etorri zenean (horrela deituko dut, pertsona baita). Egun batean, etxera ailegatzean, ezezagun bat han zegoela ikusi nuen, zurekin barrezka. Ni ikustean, irribarre bat eskaini zenidan eta A nor zen esan zenidan. Besteak eskua luzatu zidan, agur bezala, eta nik berdin egin nion. Eskua gogor heldu eta begirada sakon bat nabaritu nuen bere begietan, zulo batean eroriko banintz bezala. Bere izaera hotza eta misteriotsua zela ematen zuen.

Orduak, egunak, asteak eta hilabeteak igaroz, Ak gure etxera etortzen jarraitzen zuen, zurekin egotera. Eta gure etxera ez bazen etortzen, zu berarengana joaten zinen. Behin esan zenidan bezala, talentuz betetako argazkilaria zen. Bere gurasoek diru asko zuten, afaltzera hotsandiko lekuetara eramaten zintuen eta izugarritzko opariak ematen zizkizun. Batzuetan pelutxezko hartz erraldoi bat aurkitzen nuen pisuko sarreran, zure izena zuen ohar bat lepoan eskegita zuela. Beste batzuetan, lore piloa bidaltzen zizkizun. Posiblea da nik noizbait lore sorta bat zakarrontzira bota izana.

Baina poz-pezik zeundela ere ez nuen ikusten. Behin, jatetxe batetik etxera bueltatu zinenean, egongelan pelikula bat ikusten nengoela, niregana etorri zinen bekokia ilundurik. Ez zenuen ezer esan eta nirekin eseri zinen malko batek zure masailean lasterketa egiten zuen bitartean. Orduan jakin nuen Ak zure bizitzatik alde egin zuela.

Denbora asko ez zen igaro hurrengo ailegatzeko. Gure etxera ez zen maiz etortzen B baina ramen janariaren

hondakinak sukaldean aurkitzen nituenean banekien han zegoela. Ixil-ixila zen Arekin konparatuz. Brekin egon zinen lau hilabetetan ez nuen berarekin behin ere hitz egin. Hala ere, etxean uzten zuen janari lasterraren usaina bere pertsonalitatearen ispilua zela uste nuen. Janari laster frankizia haiek bezain errepikakor eta aspergarria. Kontatu zenidanez, marrazkilaria zen. Noizbait elkarrekin marraztu dezakezue. Itsutuegi zeunden hori posible ez zela ikusteko.

B lotsatia izan arren, pertsona jatorra zela ematen zuen. Edo hori uste nuen. Egun batean, berak oparitutako marrazki bat erakutsi zenidan. Berehala ezaguna egin zitzaidan kolore eta formengatik, nirea baitzen. Begiak ireki nituen harriduraz eta nire marrazki bat nola demontre lortu zuen galdetu nion nire buruari. Berba egitera nindoala zuri egia esateko, isildu egin nintzen. Ezin nizun poztasuna kendu nahi, ezin nizun barre hori aurpegitik ezabatu eta ezin nizun ilusioa lapurtu. Isilik gelditu nintzen.

Handik egun gutxira, malkoek zure aurpegia estaltzen zuten Bren erruz. Ni zure ondoan jarri nintzen, malko haiek xukatzen. Ez zintudan baztertuko, ez. Gure etxeko isiltasunari zin egin nion.

D behin-betiko pertsona izango zela esan zenidan. Erakargarria, langilea eta asmo handikoa zen. Bere ahots xarmagarriak jendea bereganatzen zuen. Aktore bezala egiten zuen lan kafe-antzoki batean eta hirian nahiko ospetsua zen.

Antzokitik liluratuta bueltatzen zinen etxera eta Dk antzeztutako rola azaltzen zenidan, ahotsean emozioa adieraziz. Ea noizbait bera ikustera joango nintzen galdetu zenidan, eta, bete gabeko promes guztiez gogoratu ondoren,

hurrengo saioan joango nintzela zin egin nizun. Zure oihu txikiak zirrara igorri zuen eta barre egin nuen.

Handik aste batera antzokiko sarreran geunden sarrerak erosten. Kaleko hotza gure hezurretaraino sartzen zen baina D ikusteko gogo handia zenuenez, zure gorputzak ez zuen hoztasuna nabaritzen. Barrura sartu eta antzerkia hasterakoan, argiz eta soinu bete zen gela. D eszenatokian agertu eta lerro batzuk ozenki irakurri zituen, bere ahotsa esparru osoan proiektatuz. Begi-kliska batean, jende ugari agertu zen oholtzan parte hartzen eta ikuskizun izugarri bat muntatu zen. Une batez begiratu zintudan eta txundituta zeunden. Dk oso ongi liluratu zezakeen ikuslea bere dohainekin, baita ni ere. Txaloen soinuek artelanaren amaiera adierazi zuten eta jendea haien eserlekuetatik altxatzen hasi zen. Etxera joateko ordua zela erabaki genuen.

Pisura heltzerakoan, D jada atean zegoela ikusi genuen eta zuri gauza garrantzitsu bat galdetu nahi zizula esan zuen. Urrutiko herrialde batean lan eskaintza egin zioten pelikula batean antzezteko. Hurrengo goizean abiatuko zen hegazkina. Nirekin etorri nahi duzu?

Atzera begiratu zenuen nire begirada bilatuz. Zalantza nabaritu nuen zure begietan. Hainbeste denbora zurekin igaro nuen eta hainbeste momentu bizi izan nituen, ez nuen zugandik urrundu nahi. Ez nuen zu joatea nahi. Ez, mesedez. Pentsatu nuen. Ez zaitez joan.

Baina ez nuen ezer esan. Dk alaitasuna emango zizun, eta ni pozik nengoen horregatik.

Edo agian nire buruari gezurra esan nion.

—*Bai, zurekin joango naiz* —erantzun zenion.

Nire hitzek jada ez zuen zure iritzia aldatuko, orduan, orduari begiratu nion.

—*Gaueko hamabiak dira, gauzak prestatu beharko zenituzke* —erantzun nizun nik.

Ilargi argiak

Maren Llanos Calviño
Armentia Ikastola
Gasteiz

Kantabriako herritxo txiki eta galdu batean gertatu zen, zehazki Roca de Luna herrian. Ilargi betea zegoen, inoiz baino dirdiratsuago, eta herriko erreka ur narean islatzen zen hura. Herria inguratzen zuten mendiak zuri zeuden, eta herriko etxeetako hormek zilarrezkoak ematen zuten. Batean lasai zegoen haizea harrotu egin zen, eta erreka urak nahasi egin zituen. Hain gogor ari zen ura mugitzen, ustekabean argi urdin bat atera zela errekatik, eta argi izpi bat zerurantz igo zen, ziztu bizian. Ilargiaren kontra talka egin zuen, eta asteroidea urdindu egin zen. Kondairak dioenez, txanpon baten tamainako harri urdina erori zen ilargitik erreka gau hartan, baina inork ez du inoiz ezer aurkitu.

—Ama, benetan joan behar gara? —galdetu zuen Iraidek, gogorik gabe. Ama haserre ari zitzaion, janariz betetako poltsak kotxera eramaten zituen bitartean.

—Iraide, mesedez. Hilabete bat besterik ez da izango. Abuztuanartz Bartzelonara itzuliko gara, ez da mundua amaituko.

Iraidek hasperen egin zuen. Virginia bere lagunarekin gelditu nahi zuen Bartzelonan. 17 urte beteko zituen laster,

eta Virginiarekin kristoren planak zituen. Purrustaka, bere gelara itzuli zen eta maleta egiten jarraitu zuen. Roca de Lunan ez zegoen Internet konexiorik; hortaz, bere bi gustuko liburu eta liburu elektronikoa hartu zituen, asperraldiari aurre egiten saiatzeko. Armairuko udako ia arropa guztia sartu zuen: praka motzak, top-ak, elastikoak, bainujantziak... Maleta ixten amaitu zuenean, bere ile kizkurra motots batean jaso zuen, eta nekaturik bere ezti koloreko begiak igurtzi zituen. Motxila bat hartu, eta bere mugikorra, kargadoreak eta bestelako gauzak sartu zituen. Eskura eramatekoak, alegia.

—Iraide, bagoaz! —oihukatu zuen aitak kotxetik.

Iraidek bere maleta eta motxila hartu, eta korrika joan zen kotxean sartzera.

—Bidaia motza izango da, laztana. Ez zaitetz kezkatu! —esan zuen amak, eskua belaun gainean jartzen zion bitartean. Aurrera begira zihoan, hala ere.

“Bidaia motza? Bai zera! Zazpi orduko bidaia izan da!” pentsatu zuen Iraidek, Roca de Lunara heldu zirenean. Gutxienez goiz atera ziren etxetik, eta arratsaldeko bostak ziren oraindik. Herritik buelta bat ematera joan zen. Aspaldi ez zen Roca de Lunan egon. Herria oso polit zegoen udan. Zuhaitz guztiak berde-berde, mendiak beti bezain liluragarri, eta erreka, betiko ur garden eta lasaia zuela. Herriko kaleetatik zebilela, ezagun egin zitzaion mutil bat ikusi zuen plazako bankuan eserita, liburu bat irakurtzen.

—Simon? Zu al zara? —esan zuen neskak harriduraren harriduraz. Mutilak burua altxatu zuen, eta altxatu bezain

laster, Simonen begi berde hipnotikoak ezagutu zituen. Honек irribarre handi bat egin eta liburua itxi zuen.

—Iraide! Ezin dut sinetsi! Zenbat denbora pasa den!
—oihukatu zuen mutilak. Bere ile beltz eta begi berdeek azal zuriarekin kontrastea egiten zuten, baina duela hiru urte baino askoz ere erakargarriago zegoen. Iraide korrika joan zen beregana eta besarkada handi bat eman zion.

—Zer egiten duzu hemen? Uda pasa? —galdetu zuen Simonek.

—Bai, uztaile osoa igaroko dugu hemen.

—Ze ondo! Hitz egin ahalko dugu —esan zuen mutilak. Iraidek irribarre egin zion. Elkarri begietara tinko begiratu zioten segundo batzuetan zehar, baina ez zioten begirada horri eutsi, lotsaren lotsaz.

—IRAIDE! Non demontre zaude? —entzun zen bat-batean.

—Putza! Maleta desegin behar dut! Gero egongo gara?
—galdetu zuen neskak. Simonek baiezko keinua egin zuen.

—Gaur gauean ilargi betea dago. Nahi baduzu, erre kara joan gaitezke —proposatu zion mutilak, begi-keinua eginez. Iraide gorritu egin zen.

—Ba-ba-bai, primeran —esan zuen urduri-urduri.

—Gero arte, ba! —esan zuen Simonek. Iraidek buruarekin keinua egin zion, eta etxerantz abiatu zen.

Amak janari kutxatik aurrez prestatutako patata tortilla bat atera zuen eta etxeko mikro-uhinean sartu zuen.

Aspaldian bertan egon ez zirenez, etxea apur bat hutsik eta zikin zegoen, baina aita arduratuko zen etxea garbitzeaz eta gauzak bere tokian jartzeaz.

—Non ibili zara lehen? —galdetu zion aitak, patata tortillatik sardekada bat hartzen zuen bitartean. Murtxikatzen ari zen zatia kontrako eztairitik joan zitzaion Iraideri. Eztulka hasi zen, eta freskagarri zurrutada bat hartu arte, ezin izan zuen hitz egin.

—A, kof, kof, bai, kof, kof, zera... Simon aurkitu dut herriko plazan.

—Simon, betiko Simon? Vanesa eta Juanjoren semea? Zure lagun mina? —galdetu zuen amak.

—Bai, horixe bera! Hitz egiten egon gara —esan zuen Iraidek. Aitak eta amak elkarri begiratu zioten, konplizitate keinuak eginez. Neska, lotsatuta, tortilla amaitu eta komunera igo zen hortzak garbitzera, eta atera baino lehen, bainujantzia jantzi zuen badaezpada ere. Azken finean, errekan elkartzekotan zeuden.

Errekaldera abiatu zen Iraide. Ilun zegoen zerua, eta milaka izarrez zipriztindua. Simonek lehen esan bezala, ilargi bete-betea zegoen, inoiz baino dirdiratsua.

—Pssst, pssst, Iraide! Hemen nago! —xuxurlatu zuen Simonek iluntasunetik.

Iraide izutu egin zen. Simon agertu zitzaion parez pare eskua eskaintzen, eta neskak eskua hartu zion. Astiro ibiliz, lasai-lasai erreka alboan eseri ziren, eta Simonek ekarri zuen zapi baten gainean eseri ziren, zerurantz begira.

—Guau, Simon! Benetan da polita —esan zuen Iraidek, liluratuta.

—Bai, ezta? —erantzun zuen honek.

Iraidek oso adi begiratu zuen zerura.

—Begira, Iraide, ikusten al dituzu horko izar horiek? Kometa baten antza dutenak? Hori Hartz Nagusiaren konstelazioa da, eta hor, bere alboan Hartz Txikia. Horko hiru izar horiek Orionen gerrikoa dira, eta beste horiek, Akuarioren konstelazioa -esan zuen mutilak.

Iraide gehiago hurbildu zitzaion.

—Ikusten ditut, bai. Zein politak diren... —hasi zen esaten Iraide, eskua hartzen zion bitartean.

—Zure falta izugarria sentitu dut, Iraide —esan zuen. Iraidek burua mutilarenganantz biratuz.

—Nik ere bai —eta irribarre egin zion.

Bat-batean, haizea bortiztu zen, sendo. Errekako urak harrotu egin ziren, eta urdin bihurtu ziren.

—Ezin da izan... —esan zuten biok aldi berean. Bazuten Roca De Lunako kondairaren berri. Ezustekoan, uretatik argi urdina eta itsutzeko moduko izpi bat atera zen. Simonek eta Iraidek begiak estali zituzten, eta berriz ireki zituztenean, ilargia urdin zegoela ikusi zuten.

—Ezinezkoa da, kondaira besterik ez da... —esan zuen Simonek. Korrika altxatu ziren biak. Automatikoki erre kara

begiratu zuten biek. Urak baretu egin ziren, baina urdin jarraitzen zuten.

—Sartu egingo naiz, Simon —adierazi zuen Iraidek.

—Ezta pentsatu ere, Iraide. Nork daki zer aurki dezakezun —esan zion Simonek. Iraidek ez zion kasurik egin, eta kamiseta eta prakak erantzi zituen.

—Zertan ari zara, gero? —galdetu zion Simonek, urduri.

—Bazatoz ala ez? —galdetu zion honek, burla eginez.

Simonek hasperen egin eta kamiseta erantzi zuen. Eskua eman zion Iraideri.

—Bat, bi...

—Hiru! —oihukatu zuen Iraidek, eta salto egin zuten uretara.

Bitxia bada ere, ura epel-epel zegoen eta, gainera, erreka kanpotik zirudien baino sakonagoa zen. Iraidek eta Simonek hondoraino egin zuten igeri, eta ikusitakoa ikusita liluratuta gelditu ziren: errekako hondarra zilarrezkoa zen, benetako zilarra zen. Simonek eskukada bat hartu eta praktetako poltsikoan gorde zuen. Azkar-azkar igeri eginez igo ziren azalerraino, eta harrituta begiratu zioten elkarri.

—Ikusi duzu hori? —oihukatu zuen Simonek. Iraidek baiezkua egin zion buruarekin.

—Banoa behera berriro —esan zuen Iraidek.

—Ni hemen geldituko naiz, axola ez bazaizu —erantzun zion mutilak. Iraidek “OK” keinua egin eta

berriz arnasa sakon hartuz hondoraino joan zen. Zilarrezko pikor horien artean, kristal urdin bat aurkitu zuen. Hondarra apur bat baztertu, eta ilargi-harri urdin txiki bat aurkitu zuen, txanpon baten tamainakoa, zilarrezko pikorrez egindako kate batetik zintzilik. “Kondairak dioen harria izan behar du” pentsatu zuen, hunkituta. Benetan zen liluragarria. Arnasarik gabe gelditzen ari zen; hortaz, lepokoari indarrez eutsi eta goialderantz jo zuen azkar.

—SIMON! Simon, begira! —oihukatu zuen, belarrean esertzen zen bitartean. Mutila korrika joan zen Iraiderengana, eta honek eskua astiro-astiro ireki zuen. Simon liluratuta gelditu zen. Harriak dirdira ikaragarria zeukan, benetan magikoa.

—Iraide... Kondairako harria da.

—Badakit! —esan zuen Iraidek, poz-pezik. Buru gaintik pasatu eta lepotik zintzilik utzi zuen harri magiko eta eder hori.

—Uau, ama! Zein istorio polita! —esan zidan Asteriak, nire alaba maiteak.

—Bai, ezta? Amak kontatu zidan lepokoa oparitu zidanean. Horregatik dut hain gustuko —erantzun nion. Asteriak irribarre egin zuen.

—Amama Iraidek eta aitite Simonek benetako abentura bizi izan zuten —esan zuen, bere begi urdinek dir-dir egiten zuten bitartean. Lepoko preziatua lepotik kendu, bere ile beltza baztertu eta berari jarri nion. Asteriak harriari eskuekin eutsi eta begiratu egin zidan.

—Orain zurea da. Zaindu ezazu —xuxurlatu nion.
Neskatoak besarkada handi bat eman zidan.

—Ez kezkatu, ama. Zaindu egingo dut. Mila esker —
esan zidan, eta musu bat eman ondoren, bere gelara joan zen
saltoka.

Aulkitik altxatu, eta irribarrez leihotik begira gelditu
nintzen; Roca De Lunako mendiei, haien artean pasatzen
zen erreka garden eta lasaiari... Eta gau hartan egongo zen
ilargi bete urdinari.

Azken malkoa

Nora López Agirreurreta
Orereta Ikastola
Errenteria

Logela ilun bat eta berebiziko buruko mina. Ez dut ezer gogoratzen, ez dakit nor naizen, ez dakit non nagoen, ezta hemen zergatik nagoen ere. Ez dakit ezer. Nire begiak iluntasunera usatzen hasi dira, baina ez dut ulertzen leku hau zer den. Bat-batean, oroitzapen nagi bat datorkit burura, eta nire gogamen hutsean burrunba egin du; dunbots indartsu bat, hautsa alde guztietatik, negarrak, malkoak, marraskak, beldurra eta, bereziki, oihuak. Errealitatera itzuli naiz eta orain nire buruan erreproduzitu den pasartearekin buruko mina biderkatu da. Ez jakintasunaren aurrean sentitzen dudan izu anker honengatik, bortizki altxatzeko asmoa dut, baina honek huts egindako saiakera batean bukatzen du, izugarrizko mina eragin didan huts egindako saiakerak. Nire larritasuna handiagotu besterik ez du egiten eta garrasi egitera bultzatu nau. Pauso batzuk entzun ditut eta bat-batean argi indartsu bat piztu da nire ikusmena itsutzen. Ustekabeko honengatik, nire gorputza tentetzen saiatu naiz, bat-bateko mugimenduarengatik bigarren aldiz damutuz, eta gorputz guztiko mina oraindik gehiago areagotuz. Begiak irekitzea lortzen dudanean, hiru gizon sendoren presentzia nabari dut, hortzetaraino armatuta eta arropa arraroak jantzita. Hiru gizonetako batek ulertzen ez dudan hizkuntza batean hitz egin du. Itxuraz agindu bat da, bere hitzak jarraituz, gero, beste gizonak niregana hurbildu, beso

banatetik heldu eta eraman naute. Nire gorputz ezezaguna altxa egiten dute koltxoi gordin eta heze batetik, eta besoak luzatzera behartu naute. Hankak astindu eta ahalegin handia egin behar dut gizon higuigarri horien oinetan ez erortzeko. Aurretik sentitzen nuen lastura ezintasun bihurtzen da.

—Nor zara zu? Zergatik egiten didazue hau? —galdetu dut negar-zotin artean. Nire hitzaldia punitu egiten dute buruan kolpe zorrotz bat emanaz, nire malkoak ugaritzen dira eta baita izua ere. Beste gizon bat dagoen gela huts, estu eta ilun batean sartu naute. Nirekin hitz egiten duenean esaten duena ulertzen dut:

—Zure lanbidea ezagutzen dugu, badakigu nor zaren eta nor den zure familia. Gure esana bete beharko duzu edo ondorioekin lotu beharko duzu.

—Nik ez dakit nor naizen, ez dakit ezer, mesedez, ez egin hori nirekin -erregutu dut modu ia ulertezinean nire malko isuri etengabearen eraginez.

Nire hizkuntzan hitz egiten duen gizonak, nire hitzak itzuli dizkie besteei eta elkarren artean begiradak gurutzatu dituzte. Erasoan esnatu nintzen gelara eraman naute eta koltxoi zahar batera bota naute. Zikina eta umela da. Oso desorientatuta nago, eta nekea ere handiagotu egiten da; minutu gutxitan lo kezkatu batean murgildu naiz.

Gogoan ez dudan amesgaizto batek esnatu nau eta nire taupadak ziztu bizian doazela nabaritu dut. Argia piztea lortu dut eta zorigaiztoko gela aztertzen hasi naiz, zein ordu den asmatu nahian, leku honek ez baitu leihorik. Gaindituta nago, hemendik atera behar dut. Ez dakit zein egun, urte edo urtaro den, argia dagoen edo ez... Atearen heldulekua hartu

dut eta nire erraietatik ateratzen den indar guztiarekin irekitzen saiatu naiz. Ate arkaiko honek jasan duen hondatzearengatik, espetxeratuta naukan sarraila apurtzea lortu dut. Berriro lokartu aurretik sufritu nuen pasarte arraroan baino hobeto sentitzen dut nire gorputza, baina, hala ere, une oro, zutik banago, paretaren laguntza behar dut tente mantentzeko. Leku ilun honetako aretoetan barrena nabil. Galderak datoz jarraian. Zer da leku hau? Zergatik nago hemen?

Ispilua duen gela txiki bat ikusten dut, nire itxura ikusten dudan lehen aldia da, horrelakoa naiz. Berriz jaio izan banintz bezala sentitzen naiz. Aurpegia zauriz beteta daukat eta buruan oso ebaki desatsegina dut. Bat-batean, beste oroitzapen bat etorri zait, lurrera erori naiz nire buruan murgiltzen naizen bitartean. Koaderno bat eskuetan eta inguruan jendea belauniko ikusi dut, otoitz egiten. Gero dunbots ikaragarri hura berriro sumatu eta oihu latzek etengabe jarraitzen dute. Ezin dut hortik haratago ikusi, hor eteten dira nire oroitzapenak eta ez naiz gai horren ondoren etorritako guztia gogoratzeko. Aretoan noraezean jarraitu dut eta oihalezko motxila bat aurkitu dut zoru zikin eta hautseztatuan. Intrigaz ireki dut eta berehala ezagunak egiten zaizkidan hainbat objektu aurkitu ditut: telefono bat, grabatzeko kamera bat, nire memorian agertzen zen koaderno, NA eta pasaporte. Motxila hau nirea da, berriro esnatu naizenetik ziur egon naitekeen gauza bakarra da. Pasaporte presaka ireki dut, eta lehenik eta behin, nire argazkia begiratu dut; zauririk ez dago, oso polita ageri naiz. Orezta betetako azal zuri-zuria. Goitik behera aztertu dut informazio guztia: Carolina Diaz, 27 urte, kazetaria eta ezkondua nagoela dirudi. Jarraitu dut motxilako beste objektuak aztertzen, eta nire lanbidea jakinik, gauza askok zentzua hartzen dute. Argazkiak begiratu ditut, eta koaderno.

Bir al-Abed-eko meskitaren inguruan artikulu bat idazten nenenbilen, eta bertan zerbait gertatu zen. Atentatu bat.

Supituan, ate bat irekitzen entzun dut, dena motxilan jasotzen saiatzen naiz soinu handirik egin gabe eta korrika nire logelara joaten, baina erasotzaile batekin egin dut tupust aurrez aurre. Bere begiak zabal-zabalik daude. Paralizatuta nago eta nire oinak iltzeekin lurrera itsatsiak egongo balira bezala sentitzen ditut. Bere esku hotzak eskumuturretatik heldu naute eta brida baten bidez lotu dizkit. Beste gizon bat dator eta bien artean bultzaka naramate furgoneta militar batera. Bertan dauden guztiak gizon lazgarriak dira. Besoak bizkarrean loturik ditut eta zinta amerikarraz ahoa zigilaturik. Horietako batek bere arma bortitzarekin nire burua seinalatzen du, baina inork ez du nirekin inolako kontaktu bisualik mantentzen.

Bidaiak betikotasunaren iraupena du, eta, bitartean, gerta litezkeen mila gauza pentsatu ditut. Ez dago pentsamendu positiborik. Ez dakit zein izango den azkenean nire atarramentua. Zer nahi dute nigandik? Oroitzapen asko datoz burura, baina asko dira, eta hain ozenki hitz egiten dute... Ez dut ordenatzea edo entzutea lortzen, ez naiz kontzentratzeko gai, eta are gehiago nahasten naute. Furgoneta gelditu egin da, atzeko atea ireki eta bertatik jaitsi naute. Barrakoi moduko batera eraman naute. Leku itxi txiki batean nago, lehen planoan grabatzen nauen kamera handi baten aitzinaldean. Aurrean errezitatu behar ditudan hitzak dauzkat eta gizonak armarekin seinalatzen jarraitu du, AK-47 bat. *“Carolina Diaz naiz. Espainiar kazetari bat ...”* hitz egiten jarraitu ezinik negarrez hasi naiz eta kolpe samingarri bat eman dit su-armarekin buruan. Odol tanta bat nire kopetan behera irristatzen hasia da. *“Bahiturik naukate, eta*

nire baliabideen bidez, hurrengo mezua bidali nahi dizuete. Ez baduzue...” Ezin dut ondoren datorrena adierazi. Nire atzera begiratu dut eta gizonak begiekin mehatxatu nau. *“Bideo hau komunikabide guztietara bidaltzen ez baduzue akabatu egingo naute”*. Arnasa hartu dut sakon, negar-zotinka bainago eta ez baitzait ezer ulertzen. *“Espainiako lurrak haien arbasoenak dira, eta ez dute urrikalmendurik izango lur hauek berreskuratzeke”*.

Hori esan dudanean, kamera itzali dute, eta berriro bueltan naramate lehen nengoen lekura. Oraingoan beste logela batean sartu naute, atea itxi dute, eta korrika altxatu naiz atea irekitzen saiatzeko, baina oraingo hau aurrekoa baino berriagoa da eta ez dut lortu puskatzea. Koltxoi aldera joan naiz atea berriz ere irekitzen den momentuan. Paretaren kontra eseri naiz eta indarra egiten dut haren kontra, beldurrez. Mutil gazte bat sartu dute bultzaka, eta atea berriz ere itxi egin dute. Ez naiz nire lekutik mugitu; bera ere sartu den posturan dago. Pixkanaka altxatu naiz, argiaren etengailua bilatu dut, eta argia piztu dut mutilaren aurpegia ikusteko. Ikusi dudanean, beste oroitzapen bat datorkit burura: ezkontza, muxuak, besarkadak, irribarreak, zoriona. Nire senarra da, ziur. Pauso arinez zeharkatu dut logela eta besarkada bat eman diot.

Horrela gelditu gara minutu batzuetan. Hotz eta goxo. Goxo, baina hotz.

—Zer da hau guztia, Carolina? —galdetu du izu aurpegiarekin.

—Atentatu bat egon da, Bir al-Abedeko atentatua. Bahitu ninduten, bazekiten kazetaria naizela eta nire baliabideen bidez mehatxatu nahi dute Espainia. Al-Andaluseko lurrak

berreskuratu nahi dituzte. Buruan, kolpe bat hartu nuen eta ez dut ia ezer gogoratzen.

—Nire izena gogoratzen duzu?

—Ez. Baina badakit nor zaren.

—David, zure senarra, eta zure alaba Lidiaren aita—dio irribarre urduri batez.

Lidia izena entzun eta ospitalea datorkit burura, erditzearen unea. Hortik aurrera beste guztia dator ostean, nire besoetan eduki nuen lehen aldia, bere lehen pausoak eta gu hirurok bizitako guztia. Elkarren ondoan etzan gara eta ahaztutako oroitzapenak gogorarazten saiatu da. Bahiturik ginela ahaztu dut gizon gorrotagarriak berriro sartu diren arte. Niregana gerturatu eta berriz ere banaramate. Mahai gainean nire motxila dago, eta lehen erabilitako kamera ere bai. Ordenagailu bat ondoan. Nire hizkuntzan hitz egiten duen gizona hasi da:

—Egin egin beharrekoa, baina bideo honek Espainiako komunikabideetara iritsi behar du. Bestela badakizu zer dagoen.

Pentsatzen eta objektu guztiei arreta jartzen saiatu naiz. Sakelakoa hartu dut lehenik eta behin, eta azken deiak begiratu ditut. Berehala izen bat antzeman dut, Fernando, ezaguna egiten zait. Bere ondoan parentesi artean, nire nagusia dela idatzia dago. Telefono honetara bidali behar dut. Bideoa ordenagailuan dago, beraz, posta elektronikoa beharko nuke. Mugikorreko gmail-era sartu naiz eta segituan ikusi dut, *fernandoblanco@elpaís.com*. Bidaltzen diodanean, gizonaren begirada mehatxatzaile horrekin gurutzatu naiz.

Ume txiki batek gozokia lortu duenean izaten duen begirada ikusi dut. Gelara bueltatzen naizenean David kezkatuta ikusi dut. Atea itxi eta azkar azaltzen du:

—Carolina, hor kanpoan furgoneta bat dago, ni hona ekarri ninduten zure lokalizatzailea erabiliz. Hiru orduz itxarongo zutela adostu genuen, eta, ateratzen ez baginen, laguntza bila joango zirela. Ezin dugu itxoin beraiek sorospen bila joan eta guregana etorri arte, terroristek lortu dute nahi dutena eta hilko gaituzte. Baina biak bahiturik gaude eta ezin gara atera. Zerbait egin behar dugu. Pentsatzen ibili naiz.

—Biak ihes egiten saiatuko gara —jarraitu zuen Davidek—. Atea joko dugu, ahal dugun indar guztiarekin, zaindari bat etor dadin. Bion artean gelara bultzatuko dugu, ezustean hartuko duenez, ez baitu denborarik izango erreakzionatzeko. Kanpoan dagoen zerrapoa itxiko dugu eta horrela denbora pixka bat lortuko dugu. Orain, goizeko laurak dira, eta ni hemen sartu nindutenean ordu biak ziren. Kanpoan gizon bakarra zegoen eta bestea barnean. Dena ongi ateratzen bada, barruko gizona gela honetan giltzaperatuta geldituko da. Kanpokoak *kalashnikov* bat zuen eskuan; bera ez bada, beste zaindari bat egongo da orain. Alde batetik bestera paseoan ibiltzen da; hortaz, ezkerrerantz doanean, korrika joango gara, ahal dugun azkarren eta isil-misilka. Kalkulatu dudanez, berriz ere direktzioz aldatzeko behar duen denbora 15 segundo dira, beraz, denbora hori dugu ahal dugun urrutien iristeko, honelako arma baten jaurtigaia 400 metrora iristen baita. Furgoneta gutxi gorabehera 200 metrora dago, baina etxearen eskuinean: harantz egin beharko dugu korri. Ulertu duzu plana?

Ustekabeen harrapatu nau, eta informazio asko, gehiegi da. Isilik gelditu naiz, zer esan ez dakidala. Baiezkoa ematen diot buruarekin baieztatuz. Ez nago batere ziur, baina ez dago beste aukerarik. Etsipenaren aurrean soluzio bakarra da.

—Hasiera emango diogu ba, lagundu iezadazu.

Atearen aurrean jarri eta indarrez bi eskuak erabiliz kolpatu du atea, ondoan jarri eta nik ere lagundu diot. Aurreikusi duen bezala, pausoak eta zerrapoa irekitzen entzun dugu. Begiradak gurutzatu ditugu eta atea ireki den momentuan, biok besoetatik heldu eta bultza egin dugu barrura indar guztiarekin, gu atera egin gara. Atea itxi egin dugu, eta nire adrenalina jokoan jarri da. Segundo batzuetan gelditu gara, geldirik, isiltasunean elkarri begira. Gizonaren oihuak eta kolpeak entzun ditugu.

—Carolina, gogoratu, hau guztia Lidiarengatik egiten dugu. Orain dator zatirik zailena. Zin egin behar didazu, berdin duela zer gertatzen den, zuk korrika jarraituko duzula furgonetara iritsi arte. Nahiz eta niri zerbait gertatu, zuk korrika jarraituko duzu.

—Zin egiten dizut —esan diot, eta begiak malkoz betetzen zaizkit.

—Maite zaitut —erantzun dit, muxu bat eman aurretik—
Goazen.

Aurrera egin dugu eta gizona ezkerreantz joaten hasi da.

—Ezkutatu hemen —esan dit isilpean.

—Zer egingo duzu?

—Hauek izango dira zure azken malkoak, bizitza zoriontsu bat izango duzu Lidiarekin.

Gizona dagoen lekurantz hasi da korrika, arma kentzen saiatu da eta borrokan hasi dira. Niregatik sakrifikatuko da. Negar-zotinka hasi naiz eta zin egin dudana gogoratu dut. Korrika hasi eta gelditu gabe iristen naiz furgonetara.

—Goazen, azkar —oihukatu dut.

—David? —galdetu du furgonetako gidariak.

—Hil dute —esan dut, eta momentu horretan konturatu naiz gertatu denaz. Kopeta leihora itsatsi dut eta horrela pasa dut bidaia guztia, zentimetro bat bera ere mugitu gabe. Herrialdetik atera gara ahal dugun azkarren eta, zorionez, erasotzaileak ez dira konturatu. Bost ordu igaro direnean, Alexandriako aireportura iritsi gara, eta bertan hegazkinean bueltatu gara etxera.

—Ama, aita orduan heroi bat izan zen? —galdetu dit 17 urteko alabak.

—Bai, hori da. Nire bizia salbatzeko eta zure zoriontasuna ziurtatzeko galdu zuen bizia.

Besarkada bat eman dit, eta horrela gelditu gara minutu luzez. Hotz eta goxo, goxo baina hotz.

Bizkorraren zoritxarra

Iker Maio Manterola
Lizardi BHI
Zarautz

—Altxa zaitetz tximino zikin —esan zion Wiliam jaunak Morgani.

Morganek astebete zeraman zulo batean jan eta edan gabe, atera eta ziztu bizian ura edatera joan zen. Ura edan eta 18 orduko lanaldia egitera joan zen, bere lana kotoia jasotzea zen afari ziztrin bat eta lo egiteko toki baten truke. Plantazioa George eta William jaunena zen, plantazio asko zituzten Dallas inguruan eta hori zen zuten handiena.

Afaltzeko ordua iritsi zen eta esklabu guztiak gela batera joan ziren afaltzera.

—Liburu bat aurkitu dut belar artean, baina ez dakit irakurtzen —esan zuen esklabu gazte batek.

—Nik nahiko ondo irakurtzen dut —erantzun zion Morganek.

Esklabu gazteak liburua eman zion Morgani. Irakurtzen ari zela, William jauna etorri zen lotara joateko esanez, eta Morganek liburua ezkutatu zuen William jaunak ez ikusteko.

Hurrengo egunean goiz esnatu zen liburua irakurtzeko. Liburuan 1860ko hamarkadan Amerikako Estatu Konfederatuetan gertatu zena azaltzen zen. Hamarkada horretan gerra bat egon zela jartzen zuen eta bi bando zeuden: iparraldekoa eta hegoaldekoa. Iparraldekoek esklabutza kendu nahi zuten baino hegoaldekoek ez. Liburua puskatuta zegoen eta zati handi bat falta zen.

Morganek ez zekien benetakoa edo fikziozkoa zen liburua. Kalkulatu zuen benetan gertatu bazen gutxi gorabehera ehun urte lehenago gertatu zela. Ez zekien oso ondo zein urtetan bizi zen. William jaunak, Morganek argia piztuta zuela ikusi zuen, eta logelara sartu zen zer gertazen zen ikustera.

—Zer egiten duzu liburu horrekin! Beltz nazkagarria!
—esan zion William jaunak.

Zigortu egin zuen, lau egun igaro behar izango zituen zuloan eta bizkarrean hamar azote jaso behar izango zituen. Zuloan zegoela asko pentsatu zuen irakurri zuen liburuari buruz eta falta zen zatia aurkitu nahi zuen.

Zigorra bete eta kotoia jasotzera joan zen. Lanaldia amaitutakoan etxaldera sartu zen liburuaren beste zatia bilatzera. Ganbara bat ikusi zuen baina oso altu zegoen eta eskailera bat hartu zuen igotzeko. Gutxi gorabehera metro eta laurogeita hamar neurtzen zuen eta oso erraz igo zen eskailerarekin. Ganbara armiarma-sarez eta hautsez beteta zegoen. Gauza asko zeuden: bandera zahar gorri bat bi diagonal urdinekin izarrez beteta, Dallaseko mapa bat, liburu batzuk eta orri solte batzuk.

Liburuak begiratu zituen ea hor zegoen falta zen zatia, baina ez zuen aurkitu. Orri solteak hartu zituen eta irakurtzen

hasi zen. Orri solteetan jartzen zuen Abraham Lincoln iparraldekoen alde zegoela, eta iparraldea eta hegoaldea elkartu nahi zituela. Morgan pozik zegoen liburuaren beste zati bat aurkitu zuelako, baina frustratu egin zen gehiago bilatu behar izango zuelako amaiera irakurtzeko. Oraindik ez zekien benetan gertatutakoa edo fikziozkoa zen. Ez zuen gose handirik; orduan, ogi zati bat hartu zuen eta logelara joan zen lotara.

Biharamunean kotoia jasotzen zegoela esklabu berri bat ekarri zuen William jaunak, baina ez zen esklabu normala, zuria zen, gutxi gorabehera metro bat eta hirurogeita hamar neurtzen zuen, ile horia zuen, nahiko indartsua ematen zuen eta 50 urte inguru zituen. Esklabu guztiak harriturik gelditu ziren esklabu berria ikustean. Esklabu berria kotoia jasotzen zegoen Morganen ondoan.

—Nongoa zara? — galdetu zion Morganek esklabu berriari.

—Washington ingurukoa —erantzun zion.

—Nola izena duzu? —galdetu zion Morganek.

—David Smith —erantzun zion.

Gaua iritsi zen eta afaltzera joan ziren denak. Davidek, estatuaren aurka zegoela eta demokrata zela kontatu zion Morgani. Morganek ez zuen ulertu zeri buruz ari zen hitz egiten.

Aste batean kotoi gehien jasotzen zuenak sari bat edukiko zuela esan zuen William jaunak. Denak normalean baino lan gehiago egin zuten. Morgani ez zitzaizkion asko axola sariak

baina, hala ere, lan asko egin zuen. Igande gauean afaldu baino lehen jakin zuten irabazlea nor zen.

—Irabazlea... Morgan da —esan zuen William jaunak.

Morganek ez zuen espero eta pozik jarri zen.

—Zein da saria? —galdetu zion Morganek William jaunari.

—Oilasko erdi bat, patatak labean eginda, whisky botila bat eta kafe bat —erantzun zion William jaunak.

Morganek ia guztia bukatu zuen eta soberakinak beste esklabuei eman zizkien. Kafea whiskiarekin nahastu zuen eta mikatza iruditu zitzaion, baina gustatu zitzaion. Ez zekien kafeak zein ondorio zituen. Gauerdian oraindik esna zegoen kafearen efektuagatik eta etxaldetik buelta bat ematera joan zen. Gela ilun batean sartu zen, argia piztu eta gela barruan liburu pila bat zeudela ikusi zuen. Liburuaren zatiren bat hor ote zegoen begiratzen zegoenean, William jauna azaldu zen ate aurrean.

—Zer demontre egiten duzu zuk hemen? —esan zion.

—Buelta bat ematera atera naiz eta galdu egin naiz —erantzun zion Morganek.

—Ez dizut sinisten, nazkatuta nago! —William jaunak.

—George jaunaren etxaldera bidaliko zaitut! —esan zion William jaunak.

William jaunak bere anaiaren etxaldera eraman zuen Morgan. Han lanaldi ordutegiak pixka bat hobeagoak ziren.

16 orduko txandak egiten zituzten. Lehen lanaldia amaitu zuenean, ea etxalde horretan liburuaren zati bat zegoen ikertzeraz joan zen. Ukuilura sartu eta kristoren kiratsa zegoen. Eskailerak erabiliz ukuiluaren goiko zatira igo zen. Han eguneroko bat zegoen nahiko hondatuta, bertan esklabu batek bere bizitza kontatzen zuen. Hasieran ez zen esklabua, politiko demokrata baizik, azkenean kartzelaratu egin zuten eta esklabu bihurtu zen. Egunerokoa 1856ko irailaren 6an hasten zen eta 1882ko uztailaren 21ean bukatzen zen. Egunerokoa hartu zuen tokian uztera zihoanean atzeko aldean orri batzuk josita zeudela ikusi zuen. Orri horietan 1861etik 1865era iraun zuen gerra nola amaitu zen azaltzen zuen. 1865eko apirilaren 14ean aktore batek Abraham Lincoln hil zuen eskopeta batekin tiro eginez, antzerki bat ikusten zegoen bitartean. Hilketari esker iparraldekoek beheraldi bat eduki zuten, hegoaldekoek aprobeixatu egin zuten eta independentzia lortu zuten. Morgan txundituta geratu zen.

Hurrengo egunetan ideia bat eduki zuen, iraultza bat egitea esklabutzari aurre egiteko eta denek eskubide berdinak edukitzeko. Ideia hori aurrera eramatea zaila iruditzen zitzaion, beste esklabuak ez zirelako bera bezain bizkorrak eta ez zekitelako aspaldi jendea beren eskubideak defendatzen ibili zela. Etxaldean koaderno txiki bat eta tintadun luma bat lapurtu zituen. Gutxi gorabehera idazten bazekien, eta bere ideia guztiak koaderno horretan idatzi zituen.

Kotoia jasotzen zebilela, George jauna etorri zitzaion hitz egitera.

—Zer da hau! —esan zion George jaunak haserre, koadernoak eta liburuaren bi azken zatiak erakutsiz.

—Orain dela ehun urte egon zen gerra kontatzen dute orri horiek. —erantzun zion Morganek.

—Zer uste duzu istorio hori benetakoa dela? —erantzun zion George jaunak barrez—Anaiak eta biok asmatutako istorioa da, zu bezalako esklabu errebelde nazkagarriak aurkitzeko.

George jaunak Morgan zuloan sartu zuen eta galdetu zion ea talde erradikal bat sortu zuen. Morganek ezetz, baina George jaunak ez zuen sinistu. Torturaren bidez saiatu zen Morgani informazioa ateratzen baina Morganek ez zuen txintik esaten. Egunak igaro zituen galderak egiten eta torturatzen.

Egun batean George jauna nazkatu egin zen eta Morgan beste esklabuen aurrera eraman zuen. Zuhaitz batean soka bat zintzilikatu zuen. Morgan eskailera batekin igotzera derrigortu zuen, burua korapiloan sartu eta ostikada batekin eskailera lurrera bota zuen.

Noranzko zuzenean

Nagore Iruguenpagate Arrieta

Gernika BHI

Gernika-Lumo

Isiltasuna.

Tarte txiki batekoa, ezta bonbarik urrunean, ez mugimendu militarrik eta zeta iheslari talderik ere.

Zarata ez absolutua.

Horrexek iratzartzen nau.

Hamaseigarren urtebetetze egunerako opari ezin hobea, “*Zorionak Shaira*” diotsat neure buruari.

Agian duela aste batzuk izan zen eta ez nintzen ohartu, edo posible da egun batzuk barru izatea, ez du axola; hasierako bi segundo horiek ez balira, beste edonolako egun bat bezala hartuko nuke.

Data garrantzitsu honekin ohartzean, iazko urtebetetzea etortzen zait burura. Egund hartan, goizean esnatu ondoren, sukaldera sartzeaz bat, amak sekulako besarkada eman zidan. Oroiminak gorputza goitik behera astintzen dit eta begietatik ur-jauzi txiki bat jaiotzen zait. Gerxeago, ahizpa, Nala, esnatu zen eta saltoka etorri zitzaidan zorionak ematera. Arratsaldean lagunekin egon nintzen, eta gauean aitaren opari batek harritu ninduen. Arkatz bat zen,

benetakoa, berak egina, hamabost zentimetro ingurukoa, marroi ilun koloreko egurrezkoa, grabatu txikiz apaindua, mina trakeski zuen barruan sartuta, eta horrez gain, gutun bat zekarren:

Zorionak, maitia. Ekar itzazu buru horretatik igarotzen diren istorio guztiak, mundu honetan betirako gera daitezen. Unibertsoa alda dezakezu.

Aita

Mila esanahiez betetako hitz gutxi batzuk. Baziren hamabost bat hilabete bera ikusten ez nuela, eta nolabaiteko hutsune ikaragarria sentitzen nuen, paparra zabaldu eta bihotza kenduko balidate bezalakoa.

Egun ahaztezina noski, pozez eta barre algarez betea.

Orain, berriz, erdi erorita dagoen eraikuntza baten hormetako baten atzean nago, ia ez zait janaririk geratzen, ogi pusketa bat besterik ez. Lau egun daramatzat toki berean, eta aldatzeko ordua dela uste dut.

Metro batzuetara dagoen herrira hurbildu naiz. Bertan jendeak oso arraro begiratzen nau, inoiz ikusi gabeko zerbait izango banintz bezala. Orduan ohartzen naiz nire janzeraren itxuragatik direla niganako begirada iheslari horiek. Zapatak erdi hautsita ditut eta lehen zuriak zirenak orain marroi jartzen ari dira hautsaren ondorioz, soineko antzerako zerbait daramat gainera, joskurak erdi solte ditu, eta barren aldean tela hautsita dago, duela astebete inguru landa menditsu bat zeharkatzen erori egin bainintzen. Horrez gain, oinetan eta ukondoetan zenbait ubeldura ere badituz, jada nire gorputzeko ataltzat onartzen ditudanak.

Herriko eraikuntzak arruntak dira, xumeak; janari dendaren baten bila nabil, gizon batekin estropezu egiten dudanean, barkamena eskatzen diot eta berak goitik behera begiratzen nau begirada aldendu baino lehen. Une horretan alferrikakoa naizela sentitzen dut, balio gabea, ezereza, zero bat ezkerrean. Infernu hau hasi zenetik mota horretako pentsamenduak errefusatzan ahalegindu naiz, baina noizbehinka huts egin izan dut.

Jendearen joan-etorriak nire pentsamenduetatik ateratzen nau eta aurrera jarraitzeko agintzen diot neure buruari. Minutu gutxi batzuk geroago okindegi txiki bat aurkitu dut. Erakusleihoari begira denbora asko geratu gabe, okindegiaren atzeko kalera abiatzen naiz. Orain arte egon naizen denda guztiek izaten dute zaborrontzi bat bertan, jendeak erosten ez dituen produktuak botatzen dituzte, eta denda hau ere ez da gutxiago. Alde hori, kale nagusiarekin alderatuta, ilun dago, hutsik, bizirik gabe. Zaborrontzira hurbiltzeaz bat tapa ireki eta bi egun inguru izango dituen ogi bat eta zenbait opiltxo hartzen ditut nire oihal mehezko zakutxoan. Bikain. Badaukat beste aste beterako jana.

Behin janariz horniturik, aterpe eta ur bila abiatzen naiz, horretarako, herritik aldendu beharra daukat, argi baitago hemen inork ez didala aterik irekiko. Zortedun sentitzen naiz herritik irteterakoan ibai txiki bat aurkitzen dudalako. Bi lagun daude eta ni ere hurbildu egiten naiz. Lehenengoa berrogei urte inguruko gizona da, ez dit kasu handirik egiten. Bigarrena, lepoa okerturik duen gizon nagusi bat da, laurogei urte pasatxo izango ditu. Lehenengo gizonak ez bezala, honek bere begirada gozoarekin agurtzen nau, konfiantza eskainiz. Aurpegiko zimur ugarien artean ez zaio asko igartzen, baina zin egingo nuke irrifar txiki bat zuzendu

didala. Amonaren oroitzapena etortzen zait burura, munduko gaitz guztiak ezabatzeko indarra zuen begirada etxekoi harekin. Lagunekin zerbait gertatzen bazitzaidan berarengana joan eta aholkuz betetzen ninduen. Gauero irakurtzen zizkidan ipuinak gogora datozkit: metro luze ugariko zuhaitzez beteriko basoetan bizi ziren maitagarrien istorioak, itsaso deitzen zion urez beteriko igerileku erraldoi urdin batean igeri egiten zuten izakien abenturak ... Duela lau urte joan zen, alde batetik poztu egiten naiz; ez du aitaren joana ikusi, ezta gertatzen ari denaren ondorioz familia osoa banatu garenik ere.

Gizon gazteak behin alde egin duenean, adineko gizonarekin geratu naiz:

—Zera ... Ezagutzen al duzu lo egiteko tokirik hemendik hurbil? Edo gutxienez sabaia eta paretak dituen zerbait?

Ez dit erantzun. Agian ez dugu hizkuntza bera hitz egiten. Bira erdi emanez niri begira jarri da. Lehengo begirada leun eta etxekoi bera da. Poliki-poliki eskuin besoa altxatzen du eta ekialderantz seinalatzen du hatz erakuslearekin, gune malkartsua da eta zenbait landare ikusten dira urrunean.

—Hortik zehar joan behar ahal dut?- galdetzen diot ziurtatzeko.

Berak buruarekin baietz adierazten dit. Ondoren, nire besoa jartzen dit bidea erakusteko erabili duen beso bera. Emeki-emeki igurzten nau eta zimur tartean barretxo txiki bat nabaritzen diot berriz ere. Konfiantza osokoa iruditzen zait, arratsalde batean hilabete hauetan gordetzen egon naizen guztia esango niokeela uste dut, nahiz eta ni gauzak

barruan gordetzea nahiago duten pertsona horietakoa izan. Badago jendea begirada hutsekin, hitzak soberan direla, dena jakinarazten dizutenak, eta zuk, nahi gabe bada ere, zure bihotzeko tokirik ilunenak bistaratzen dizkiezu. Horrela, lagun horiek bihotzeko kantoitxo txiki baten jabe egiten dira, eta zuk badakizu kantoï hori betirako izango dela beraiena, inork ezingo diela beraien tokitxoa kendu, inola ere.

Poliki-poliki urruntzen hasi da. Nik, pausu bat aurreratuz, nire ur botila txikia betetzen dut eta ibaitik tragoxka bat hartu ondoren bidetik abiatu naiz. Ez dago inor. Gainera, orain ohartu naiz ez dela mugimendu militarrik egon ez hirian, ezta gaua pasatu dudan tokian ere. Agian akordioaren batera iritsiko ziren, baina horrela balitz, herriko jendearen aurpegietan zerbait nabariturako nukeen, eta aurpegi horietan egunerokotasun hutsa nabari izan dut.

Badaramatzat minutu batzuk oinez. Jada atzean utzi dudan hiria eskuekin har dezaket eta beste puntu batean berriz ere utzi.

Bidean zehar, hau guztia hasi zeneko oroitzapenak dakartzat burura: nire hirugarren urtebetetzea, edo Nala lehenengoz ikusi nuen eguna. Egun hura atzo balitz bezala gogoratzen dut. Amonarekin geratu nintzen etxean aita eta amak lau egun egin zituztelako ospitalean, amona ipuin bat irakurtzen ari zitzaidan bitartean atea jo eta ama sartu zen. Haren ondoren aita, Nala besoetan zuela. Hirurak aldi berean besarkatzen saiatu nintzen, baina nire beso motz eta meheek ez zuten horrenbesterako ematen. Eskolan hasi nintzen eguna gogoan dut. Sei urterekin amak motots bi egin zizkidan, eta amonak oihalezko poltsatxo bat josi zidan, nire izena bordatua zuela. Baina edozein alde onek bere zati

txarra duen bezala, nire pentsamenduak ere azkar ematen dute 360 graduko bira, eta bat-batean amona joan zen eguna gogorarazten dut. Nik jada banuen zer gertatzen ari zen jakiteko beste zentzu, baina Nala gaztea zen eta ez zuen ulertzen ezer. Ez zituen amaren malkoak ulertzen, ezta aita horrenbeste denboran etxean ikustea ere, ohikoena lanean egotea baitzen.

Poliki-poliki iragan zen guztia ulertzen eta barneratzen; baina egunerokotasunera ohitu orduko, goiz batean, bi soldadu agertu ziren etxeko atean. Nalak ireki zuen atea eta amari deitu zion. Ni sukaldean nengoen amari harrikoa egiten laguntzen eta bere atzetik joan nintzen. Ama atera hurbildu zenean, garbitzen ari zen platera lurrera erori eta zati txiki egin zen. Aita korrika joan zen etxeko sarrerara gertatu zenaren berri izateko, baina hark ere laster baretu zuen pausoa gertatzen ari zena nabaritu zuenean. Bi hitz esan gabe bere logelara joan zen eta, denboraz prestatu zuen motxila lepoan hartuta, besarkada bana eman zigun. Amari belarrira zerbait esan zion eta berak negar zotinez erantzun zion. Nala guztiz beldurtuta zegoen, eta nik amari laguntzeko nahiarekin negarrak neure barne gorde nituen. Egun horretatik aurrera hirurok inoiz baino elkartuago egoten saiatzen ginen, batak bestea besterik ez baikenuen.

Horrez gain, bakea, nolabait esateko, hautsi zuen eguna ere gogoratzen dut. Udaberria zen eta goiz esnatu nintzen, jada ohitura hartuta bainuen. Sukaldera sartu eta bertan ama zegoen, etxeko txikiaren zapata hautsi batzuk konpontzen ari zen. Esne pixka bat urarekin gosalduta ondoren, ahizpa eta ama musu batez agurtu eta etxetik alde egin nuen. Jakin izan banu ikusiko nituen azken aldia

izango zela, argi dut ez nintzela beraiengandik urrunduko. Isis eta Ashantekin geratu nintzen bigarrenaren etxean. Bertako bidea azkar igaro zitzaidan. Sartu nintzenean, biak zeuden niri itxaroten egongelan, agurtzeaz bat galderak hasi ziren:

—Non eta noiz geratu zarete? —hasi zen Isis.

—Ba al dakizu zer eramango duzun jantzita? —jarraitu zion Ashantek.

—Bazarete astunak gero?!... Neskak lasai, zuek zaudete ni baino gogotsuago eta...—erantzun nien—. Ajanen izebaren okindegian geratu gara arratsalde erdian zehar eta nagoen bezala noa jantzita, ez naiz alferrik zoratuko.

Isisek eta Ashantek begiradak gurutzatu zituzten ezuste aurpegiekin.

—Bikain egiten duzu, Shaira —animatu ninduen Ashantek.

Egun hori oso garrantzitsua zen niretzat: arratsaldean Ajanekin geratuta nengoen, txiki-txikitatik ezagutzen nuen mutil batekin.

Denbora luzez aritu ginen solasean, eztanda erraldoi batek dena instant batez isildu zuen arte. Altzari guztiak mugitu ziren, zeramikazko ontzi batzuk lurrera erori eta apurtu egin ziren eta uhinen ondorioz ate eta leiho guztiak irekita geratu ziren. Hirurok itzelezko oihua egin genuen eta bakoitzak bere gorputza besarkatu zuen, beldurraren beldurrez. Segundo hori, eztanda hori, goiz hori... denak inoiz iritsiko ez zen arratsalde baten zain.

Bat-batean Ashanten ama egongelara sartu eta oihuka hasi zen:

—Neskak, zaudeten bezala, goazen, goazen hemendik, azkar!

Nik ez nuen ezer ulertu nahi, baina zoritxarrez banekien eztanda horren esanahia.

—Fatimah, ni etxera noa. Ama eta Nala ikusi nahi ditut-erantzun nion bat-batean.

—Ez, Shaira. Arriskutsuegia da, etor zaitez gurekin- Isis eta Ashant oraindik beraien onera etortzeko zeuden.

Bi aldiz pentsatu baino lehen, korrika alde egin nuen etxera, bertan ama eta Nala aurkitzeko asmoz. Baina, etxean ez zegoen inor. Mahai gainean amak idatzitako zerbait zegoen:

Zaindu zaitez, gai zara eta. Ez gugatik arduratu.

Ama

Ez nion buelta asko eman, neure kalterako izango baitzen. Jateko zerbait hartu eta mendebalderantz abiatu nintzen.

Badaramatzat horrela lau hilabete inguru, hamabost toki ezberdin baino gehiago ikusi ditut, mota askotako jendearekin egin dut topo eta inoiz egingo ez nituzkeen gauzak egin ditut. Zer egiteko gai naizen ikusi dut, eta neure buruarekin bat egiten eta defendatzen ere ikasi dut.

Gauzak eskura ditudanean aprobeztatzen ere ikasi dut, eta momentukoa momentuan bizitzen. Etorkizunari eta iraganari eskua emanda oinez egiten ere ikasi dut, baina

gehiegi estutu gabe, edozein momentutan estropezu egin baitaiteke eta eskuak lotuta oso zaila baita bizitzaren harri koskorren besoetatik ihes egitea.

Eta momentu honetan, bizirik nagoela nabaritzen dut, nire barrua hutsik egon daiteke, baina banoa pausoka-pausoka betetzen. Eta nahiz eta uste dudan galduta nagoela, noraezean noala, inoiz baino argiago dut nora joan nahi dudan.

URRZUNOTARRAK
1986-2020

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Abaunza Urionabarrenetxea	Sara	Ametsen bila	2013	Prosa
Aboitiz Correa	Xabier	Ikaro	2010	Prosa
Aginaga Etxebarria	Leire	Anbotoko dama	2017	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maite duen orok...	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotoaren mendekua	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	Prosa
Agirre Epelde	Maddi	Sugea eta zu	2020	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Pausoak	2006	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Ikararen korridorean gaindi	2007	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Agian	2007	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Insomnio gauetan idatzitako zirriborrea	2007	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Hiru segundo eta erdi	2007	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Azkeneko bidaian	2008	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Denbora zer den	2008	Poesia
Agirre Gonzalez	Amaia	Zenbakaitzaren mugagabetasuna	2006	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Gatibu	2007	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Zeruertzaren bila	2008	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Tximeleten jolasa	2008	Poesia
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	Poesia
Agirre Madariaga	Uxue	Oroitzapenen ziega	2010	Prosa
Agirre Martija	Elena	Instagram	2020	Poesia
Agirre Mosquera	Uxue	Espero ez nuena	2010	Poesia
Agirre Zapiain	Ugaitz	Malkoz josiriko bandera	2008	Poesia
Agirre Zapiain	Ugaitz	Erokerian	2009	Poesia
Agirregomezkorta Iza	Miren	Mare Mortum	2018	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Bitxilore, zu traidore	2016	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Aske	2017	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Irantzu	2018	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Miraz	2018	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Oroitzapenen kutxa	2019	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Naia	Nire poema	2020	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	Prosa
Aizpuru Bilbao	Miren	Larunbatak	2016	Prosa
Aizpuru Seguroa	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	Prosa
Akizu Bidegain	Maialen	Blas	2011	Prosa
Akizu Bidegain	Maialen	Ipuin batean bezala	2011	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Hozkada	2012	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Espaloian noraezean	2012	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Zulo beltza	2013	Poesia
Akzu Bidegain	Maialen	Teloia jaisten denean	2013	Poesia
Alberdi Estibaritz	Antton	Ez dut ezer ulertzen	2002	Prosa
Albizbeaskoetxea Sánchez	Beñat	Zein urrun dagoen Europa	2018	Prosa
Aldabaldetrekua Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	Prosa
Alduntzin Egizurain	Unai	Morte nel carnevale	2008	Prosa
Alduntzin Egizurain	Unai	Izango al du udaberririk negu honek?	2009	Prosa
Alonso Allue	Leire	Azken dantza hau	2011	Prosa
Alonso Allue	Leire	Autopsia	2012	Poesia
Alonso Allue	Leire	Alzheimerraren doinua	2012	Prosa
Alonso Allue	Leire	Jainkoaren izenean	2011	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	Poesia
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Beragatik	2015	Prosa
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Post mortem	2016	Prosa
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Lubiankan	2017	Prosa
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	Poesia
Amutxastegi Maguregi	Amets	Denbora makina	2019	Poesia
Amutxastegi Maguregi	Amets	Autoernetzea	2020	Poesia
Ansa Arbelaitz	Garazi	Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute	2005	Prosa
Ansa Arbelaitz	Garazi	Oraina iraganean ahazturik	2005	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	Prosa
Apaolaza Cardona	Mattin	Azken geltokia	2016	Poesia
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	Prosa
Arana Cardenal	Oihana	Volfgang	2019	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	Poesia
Aranburu Gorrotxategi	Laiene	Zuri esker	2017	Poesia
Aranburu Guridi	Mattin	Gau luzea	2012	Prosa
Aranburu Guridi	Mattin	Zapi zurian, zirkulu ubela	2013	Poesia
Aranburu Guridi	Mattin	Zer gerttau da?	2013	Poesia
Aranburu Guridi	Mattin	Habana, beste herria	2014	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	Poesia
Aranguren Juaristi	Olatz	Aztiaren eskuetan...	1996	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedeen isila	1989	Poesia
Aranzeta Zubeldia	Amaia	Iraultza	2003	Poesia
Arbelaitz Lekuona	Usua	Helmugara iristea, hori da kontua	2000	Prosa
Arbelaitz Sarasola	Olaia	Hantxe lokartu nintzen	2003	Prosa
Arejita Abaitua	Ane Miren	Errekaren mozorroak	2013	Prosa
Arejita Abaitua	Nerea	Biolontxeloaren arima	2014	Prosa
Arenas Belamendia	Leire	Borobilean amaitzen diren istorioak: Narziso	2011	Poesia
Ares Amaia	Nagore	Urdinez tindaturiko hitzak	2007	Poesia
Aristizabal Tolosa	Ekiñe	Pairatzeak ikaratu ala ikara pairatu?	2003	Poesia
Arozena Velez	Maite	Aita, zer gertatzen zaio munduari?	2001	Prosa
Arratibel Galartza	Enara	Begi ditziratsiak	1995	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	Prosa
Arregi Izagirre	Alots	Puntu ta komak garagardo aparretan	2003	Prosa
Arregi Izagirre	Alots	PaPérezko hegazkinak biribil ezabatuan	2003	Poesia
Arregi Izagirre	Alots	Belaunpe konprimuetako autobus geltokiak	2003	Poesia
Arregi Izagirre	Alots	Hegoak ebaki banizkion zeruari, ez zen urdina izango	2003	Poesia
Arregi Izagirre	Alots	Gaur, berandu sartu zait beltza hartzeko gogoa	2004	Prosa
Arregi Izagirre	Alots	Gasolinategirik baldin bada	2004	Poesia
Arregi Izagirre	Alots	Tximeleta zuriak kutxa gardenetan asfixiatzen dira	2005	Prosa
Arregi Izagirre	Odei	Itsasoaren besoetan	1999	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Amets gaiztoetatik ihesi	1999	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sentimentuetan galdurik	2000	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Aingeruen negarra	2000	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Argi amatatuetan itzal bat	2001	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Bizitzaren drogak	2001	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sagar bihotzak sagar begietan	2002	Poesia
Arregi Lopez	Ane	Zuk uste ametsak bete daitezkeela?	2002	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	Poesia
Arriolabengoa Bengoa	Nagore	Hesiak gaintitzen	2001	Poesia
